

AZKOITTIKO EUSKERIE

Aizkibel beka

AZKOITTIKO EUSKERIE
Aizkibel beka

Azala: 11 artekimen.
Argazkiak: Txurruka Etxea eta Udaleko fondoak.
Maketazioa: FK.
Inprimaketa: ZUBI.
I.S.B.N.: 84-931795-1-5.
Deposito legala: SS-710/01.

SARRERA

Gizaldixetan zier, urtitan zier, moldaketak eta doinuk artzen jun da Azkoittiko euskerie. Gurasotatik semeta pasaez. AZKOITTIKE, euskeraz bizi izen da eta euskeraz bizi da.

Amaren bularretan, etxe txokotan eta kaletan, elkar bizitzen, ikisi eta ibiltzea allau gean danok daukeu ze ikusixe gaur aurkeztean liburuxka onekin. Gure izetin, azkoittiar izetin, azkoittiar izetin muñe deu euskerie.

1999.go urtin, Azkoittixe sortuzaneko 675go urte betetzin, Udalak beka bat sortu zun AZKOITTIKO EUSKERIE aztertze-ko. Lan au, letzaile, zure eskuten daukezu gaur. Lenengo pausue izengoa segurunez. Hasiera bat izetie espero deu.

Pedro de Yrizar y Barnoya jaunak, azkoittiar jakintsu eta ospetsuak, azkoittiko euskeraz itzegitten duenak mundu zabalin, eitten dixo itzaurrie. Gure eskerrik beronak berorri.

Euskerik izen dittu bai egoera beltz askuk, gaur zorionez, naiz eta bide luzie euki ondik normalizatzeko, aittortu ber deu, lan asko ein dala.

Euskerie da gaur, Europak dauken monumento bizi berezixenetakue eta beste batzun artin, azkoittiarrak esker.

Danon eginkizune eta retue da, jakintasunen eta informazixun gizartin, geure izetie eta arrastuk ez galtzie. Mundure beire eta mundu berri ontan parte izetie, azkoittiarrak izeten jarraituz.

Azkoittiarrak esateun bezela, ZER GEA BA!

Nerea Zubizarreta Artetxe
AZKOITTIKO Alkatie

AURKEZPENA

Lan honek Udalaren deialdi baten ondorioz egin zituen hastapeneko urratsak. Bertan, Azkoitiko hitzen bilketa proposatzen zen. Asmo horrekin bildu ginen hiru lagun eta kafetxoa hartuz proiektua prestatzen hasi ginen.

Jo genuen lehen atea San Jose Egoitzakoa izan zen. Bertako bizilagunentzat hiru gazte grabagailu batekin ikus-tea ez zen batere ohikoa baina oso harrera ona egin ziguten.

Ordunik gaur arte hartutako kafetxoak eta eginiko kilometroak asko izan dira.

Lan esparrua oso zabala izanik Azkoitiko hizkeraren argazki bat egitea nahi izan dugu. Bertan, bi urtetan eginiko elkarrizketa eta lanaren fruitua azaltzen dizuegu.

Hiztegiaren oinarrian ahozko hizkuntza dagoen arren, ez dugu ahaztu izan nahi idatzizko hizkuntzaren lekukotasuna ere.

Gure metodologia, egokiak iruditu zaizkigun pertsonen eginiko elkarrizketetan oinarritu da. Ondorengo lana elkarrizketok transkribatzea eta aukeratzea izan da. Azkoitiko euskara aztergai izanik ezinbesteko iruditu zaigu esparru batzuei lehentasuna ematea. Horien artean honakoak daude: alpargaten mundua, jostunena, pilotariena, gazte eta umeen euskara eta baserri giroko hizkera.

Metodologia horrek baditu bere zailtasunak. Alde batetik, jendearentzat grabagailuaren presentzia nahiko deserosoa gertatu da. Bestalde, transkribaketa egiterakoan Azkoitiko hizkeraren idatzizko eredu ezak buruhauste handiak eman dizkigu.

Baina zailtasunak zailtasun, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu etxeko atea ireki eta harrera goxoa egin duguten hainbat familia eta lagunei. Horien artean, eskerrik beroenak gure artetik joan diren Patxi Estra eta Candido Beristaini.

"Axkoittiko" hizkeraren lan hau zuek, herritarrok, egin duzue eta zuen eguneroko erabilerak egin du posible. Gure asmoa xumeagoa izan da, biltzaile soilak izan gara.

Bidai hau guretzat, oso aberasgarria izan da, bai hizkuntza mailan bai esperientzi mailan ere. Jendearen kontakizunen bidez Azkoitiko herritarren bizimoduan, ohituretan, jaietan, umorean... murgiltzeko aukera izan dugulako, pasadizo eta istorio ugari ezagutuz.

Azkoitiko euskara edo hizkerak suposatzen duen ibilbidean, gurea lehen urratsa izan dela deritzogu. Ziur gaude dena ez dugula jaso, eta ez gogo faltagatik, denbora ezagatik baizik.

Jakina, liburua zuen eskuetara iristean, batzuei bitxia irudituko zaiena, beste batzuei arrunta irudituko zaie, eta, falta diren hitz eta esamoldeak ezagutuko dituztenak ere izango dira, noski.

Horregatik diogu, lan hau lehen urratsa dela. Beste norbaitek egindakoa oinarritzat hartuz luzatu edo sakondu nahi badu, biziki animatzen dugu.

Vanessa del Castillo
Jose Angel Romo
Bakarne Giralt

HITZAURREA

Poz galantakin jakin nuen gazte batzuek ai ziela Azkoittiko euskerari buruz liburu bat eitten, eta esan ziebenien ia nai nuen liburu orrentzat itzaurrie idatzi, kolpea erantzun nuen pozik eiño nuela ta gusto aundixekin gañea.

Liburu au oso ederki eiñde dao, egixez interesgarrixe da eta azkoittiar guztiok poz aundixekin egon ber deu bere aurkezpenakin. Nere partez zorionak biotz-biotzez egillei.

Ni erdaldun-berrixe naiz. Oso gazte nitzala erderaz jakitie derriorra izen nuen nere estudixuentzako, bañe aurretik euskeraz bakarrik itzeitte nuen, Azkoittiko euskeraz. Nere iñudie Mari Joxepa, Errekalde basarrikue zan. Eta gure etxien neskak beti azkoittiarrak zien. Ni mutikoxkorra nitzenien: Pilar Larrañaga (Olotzakue), Maria Arrieta (Ugertekue) [Ugarte au erriko erteran Zumarra aldera zegoen, eta nik eiñ nuen mapan — oiñ Kontzejuen dagoena— ederki ikustea] eta Ana Juaristi (Atanokue). ¡Santa aundixek laurek!. Zeruen egongoiez seguru asko, oso goixen gañea.

Lelengo letrak Mixerikordixen ikisi nittuen, sor Dorotea ta sor Soterakiñ ¡Auek ere santa galantak!

Orreatik itzaurre eo "prologo" au azkoittiko euzkeraz eiñgot. Euzkera goxo au txikitten ikisi nuena da. Azkoittiko euskerie da neretzat maitteena.

Mutikoxkorra nitzenien oso rubixue nitzen eta Madriko Erretiroa (El Retiro) jute nitzenien jolasea, ñola euskeraz bakarrik itzeitte nuen danak uste zeben Noruegakue edo Sueziakue nitzela.

Oiñ dala ogei bet urte, bi lantxo idatzi nittuen Azkoittiko euskerari buruz ["Disquisiciones lingüísticas azcoitianas". Boletín de los Amigos del País, XXXVII (1981), pp.303-305].

Lelenguen saxatze nitzen erakusten nola, Azkoittiko euskerie aztertuz, ikusi leiken gure errixe beti oso katolikue izen dala.

Jakiñekue da ñola euskaldunentzat saille dan errekin asteiezen itzek esatie. Derrior aurretik bokal bat ipiñi ber dixou. "El remedio" esateko aurretik e ipintzexou erreimeixue. "Ramón" esateko, Erremon.

Bañe izen batekin beste moru batea jokutzen deu, Izen ori da Roke. Beintzet ni gaztie nitzenien ez genduen Erroke esaten baizik Droke. Eta au zeatik?

Antxiñeko denboran, mundu guztixen, gaixotasun bildurgarrixe zabaldu zan, pestie. Jentiek milleka iltze zien. Merikuek alperrik saxatze zien, jaiki tte jo. Erremexoik etzeuen. Orduen azkoittiarrak San Rokegana jo zeben esanz:

- San Droke salba gaitzatzu!

Euskeraz "honrado" esateko ondrau esaten deu, ta beti aurretik n daonien d sartzeu. Orreatik Droken d orrek esan nai du azkoittiarrak sarritten errezatzen zixobela San Drokei, gaixotason bildurgarri artan. Azkenien Roke geldiu zan, bañe Erroke ez.

Itxurie dagoenez San Droke ondo portau zan, eta arrezkeo, Andramaixen bigarrenge egune San Drokena zan eta prozesixo ederra eitte genduen "Sansebastian" zier ta geo Auresku famaue plazan.

Oiñ nere bigarren istorixe. Don Joakiñ, sasoe bateko parroko agurgairrixen zan, ta Erremon sankristaue. Ixtori au bixen arteko alkarrizketiei buruz da.

Don Joakiñ urte askotan izen zan Azkoittiko parrokie. Mendeko lelengo berrogei urteetan jaixo giñen azkoittiar guztiok bearek batiau giñuzen.

Egun baten Don Joakiñi akordau zikon gauze bat eiñber tzuela; zeoze laga zuela eitteke derriorkue zana, bañe etzekixen ze gauza zan ori. Bakarrik zekixen zeoze zala eitteke geildiu zana. Ta pentsau zuen Erremon akordauko zala ze gauza zan ori eta gaña ordureko akaso eiñde eukiko zuela; eta esperantza ortan esan zixon Erremoni:

- Erremon, zeako zer ori zertu al dezu?

Bañe Erremon, Don Joakiñ bezela zeuen. Basekixen zeoze laga zebela, eitteke, bañe etzekixen ze gauza zan eitteke geldiu zan ori, eta orrela erantzun zixon don Joakiñi:

- Don Joakiñ, zeako zer ori obeto zertze ezpau, zertzeke geldiu da. [zertzeke ori Azkoittiko inguruetakori erri batuetan esatebe, bañe toki geixe letan zertu gabe esatebe].

Orduen bazien Azkoittixen bi abare famauek. Bat zan Don Jose Otaño. Orrekin eiñ nuen nik nere lelengo komuniue Azkoittiko parrokiaren.

Ordungo Andramaixetan, goizeko lauretan aste zien txaferruek botatzen eta kanpaeik jotzen, kanpai danak batea: dundun zarra, dundun berrixe; ...ta kanpai bakutzek badu bere izena.

Gero, bostetan txistulaixek. Xeiretan, dultzaiñeruek, Zazpiretan, bandie. Ezin zeiken lorik eiñ.... Bañe don José Otaño gustoa zeuen ta esate ementzuen:

- "¡Auek dittuk pesta ederrak!

Beste abarie azkoittiarrek asko maitte genduen zan Don Domingo. Auskalo zenbat mutiikokkor ta zenbat nexkakokkor sartu zittuen gonbentotan! Nik beiñ esan nixon Don Domingoi:

- " Zertako aiñbeste saxau gonbentotan sarten? Gero erdixek erten eittebe." Ta don Domingok erantzun zien, arrazoi aundixekin.

- " Bai, bañe beste erdixek gelditzeiez barruen!"

Orra or oraiñ gure etxien aurrien pasauteko ixtori ederra.

Ascencio Cuende jaune gure etxe aurrien bizi zan. Gizon aundixe ta elegantie, beti dotorejantzitte zebillen eta konpitero famaue zan. Gaitzizena "Maltienpo" ipiñi zixoen.

Bere etxe aurrien, Errexilleneko etxie zeuen, eta eskiñen aste zan kale txiki bet Txakur-zulo esatezixoen tokire zijoen. Oiñ eztao kale orren aztarranik; Toleneko etxie bota zebenien, kale ori txorittea juntzan. Oiñ plaza aundi eder bet dao.

Eskiñe ortan bertan egote zan gau gustixen Tolosako antomobille. Au aubobus aundi bet zan.

Goizero xeiretan puntuen autobus aundi orrek ertetze zuen, Tolosaño juteko. Txoperra Felipe Errexil zan, nere anai Joakiñen txikitteko lagune. Bere seme gazteena PNVen buru da oiñ.

Sasoe artan automobill aundi auek abantau baño len motorra berotu ber zeben, ta Felipe Errexillek ordu erdi baten, gutxienez, motorra eukitze zuen martxan izugarritzko burrunbadakin: Brrr...brrrr...

Alako baten Felipe Errexillek top eiñ zuen kalien Maltienpokin, eta esan zixon:

- "Goizeko xeiretan aitze al dezu antomobille martxan ipiñtzetanien Tolosa juteko"

Adarrien esan zixon eta pentsatze zuen, Maltienpok erantzungo zixola, dana asarraute:

- "Txarri ori! eztiak lagatzen lo eitten"

Bañe beste moru batea pasau zan. Maltienpok esan zixon:

"Bai, Felipe, egunero aitzeiat, oriñela txixez betetzeiat, eta oien buelta erdixe eiñez, berrize lo eitteiat lasai, amarrak eo ameikak arte, eta pentsatzeiat: Felipe gizajue ¡Oiñ Tolosaño junber...!"

Ala ñola azkenien Maltienpok jo zixon adarra Felipei.

Beiñ azkoittiar bat jun ementzan Bilboa bazka ederra eitteko asmuekin... eta baitte eiñe. Postrie nai zuen artzie erderaz "cuajada" esatebena eta Azkoittixen mamixe. [Beste errixetan "gatzatue" esateixote mamixei] Enterau zan mamixe erdaraz nola zan eta eskau zuen.

- "Para postre miga" esan zuen.

Ogi pusketa aundixe ekerri zixoen, azala kendute.

Orañ dala urte asko -gutxienez irurogei— Vicente Vial asi zan Azkoittiko itzek eta esaerak biltzen, bañe ustet ezerre etzuela eiñ, beintzet nik dakittenik. Onegatik oiño liburu au oso ederki dator utsune ori betetzeko. Derriorkue zan. Vixentei aittu nixon "dunbela" itz azkoittiar netue zala. Bestalde, emakume bat aurdun zeuenien, esate giñon: Ori den dunbela!

Azkoittiko ta Azpeittiko euskerak alde aundixe daukebe. Guk etorri dittuk esateu, Azpeittiarak etorri dituk. -t- hori bustitzeke. Gurie goxoague da. Ez al da egixe?

Bestalde, guk esateu nik ekarri dixot [obeto egongo li-tzeke ekarri didxot idaztie], azpeitiarrak esatebe nik ekarri diddot. Azkenengo era au (diddot) Azkoittiko Arrieta-mendíxen ere erabikiltzen debe. Martitten egon nitzen Juan Ignacio Uriá ta Alejandro Azpiazu (Aldako) kin ango esaerak biltzen.

Alejandron aitte zana, Joxe Manuel, Aldako arotza zan, ta bere lagun, Juan Joxe Narbaiza, "Luzie ", aizkolari famauekin, bixek juntzien Sevillara. Etorri zienien galdetu zixoen Joxe Manuel ia nola jaten eta nola eraten zeben Sevillan.

Erderaz galdetu zixoen Joxe Manueli eta onek erderaz erantzute zuen, Azkoittiko euskeraren kutsuekiñ:

- Beber... bonitamente, pero comer... sin fundamento!

Itxurie dagoenez "tapak" ipiñiko zizkoen: plater txiki batzuetan, aizeitunek, almendrak eta abar.

Azkoittiko euskeriek bizkaieraren eragiñe du: guk esateu: aixek ekarri debe eta gipuzkeraz ekarri dute da. Gaztiak esaten genduen etorri diez eta zaarrak etorri die eta berriz ere esaten genduenien etorri diezela. ("que han venido"). Zaarrak esaten ziguen ixilik egon ai, "diezela" motorra dek. Sasoe artan Intxustiko fabriken motor eder bat ipiñi zeben "Diessel" alemana.

Nei gustatze ziten aitte-semiek alkarren kontra, xextran, jartzie [jakiñe, broman, asarratzeke]. Guk esate genduen etorri nitxian, zaarrak berriz etorri nitxixian, eta baserritarak etorri nitxetuan [nitxeluan eta oraingoko aldiko zetuak eta abar izugarri garrantzi aundikuek diez Linguistikari buruz], Xextra oixen bittertez nik nai nuen aztertu Azkoittiko euskeraren aldaketak urtietan zier.

Gipuzkeraz subjuntibue nik ekarri dezadan da, bañe guk esateu nik ekarri daitten. Au bizkaieratik dator, bizkaieraz subjuntibue dagidan da.

Potentziala berriz gipuzkeraz dezaket da, bañe guk daiket eta leiket esateu bizkaierako dagiketetik datoztenak. Nere denborako neska gaztiak, - ondo akordatzen naiz—zeoze xelebren xamarra aitze zebenien, esate zeben: Nola leike!

Pedro de Yrizar.

Madriken, 2000-X-29an.

BIOGRAFIA

Pedro Yrizar y Barnoya

Azkoitian jaioa 1910eko abuztuak 11an.
Euskaltzaindiako akademikoa
1947ko martxoak 28tik.

EHAE-RSBAP-eko kidea.

Doktore Injenieru Industrial.

Doktore Injenieru Geografoa.

Zientzia Ekonomikoetan lizen-
tziatua Sari Bereziarekin.

Zientzia Ekonomikoetako Dokto-
radutzako ikasgaiak gaindituta tesia
aurkezteko faltan.

Ogasun Ministeritzako Injenieru
Industrial. Finantza eta Zerga
Ikuskatzailea.

Moneta eta Tinbreko Fabrika Nazionaleko Banketxe-
koko Bileteen Egitearen Arduraduna.

Injenieru Industrialen Goi Mailako Eskolako Ekonomia
Irakaslea.

Ikerketa Zientifikoetarako Goi Kontseiluko Juan de la Cierva
Patronatuko *Ciencia Aplicada* aldizkariaren erredaktorea.

Patronato beraren *Racionalización* aldizkariaren erredaktorea.



IRAKURLEARI

1. Hasieran Azkoitiko "-Xe" sonatua, "-jje" moduko bat zen, edo hobeto esanda, bien arteko nahasketa bat. Herri horrek bereak dituen auzotariko batzutan azken joskera mantentzen da, edo bien artean behintzat "-jje" nabarmentzen da. Esate baterako, Martitte eta Olason jasotako hitzak bukaera hori daukate. Hala ere liburu osorako eredu nagusi bat aukeratu dugu, kalekoa, eta hitz guztiak horren arabera eman ditugu. Horrela elkarriketetan "Mandiyue" jaso arren, hitz hori "Mandixue" bezela agertzen da, ondoren beste informazio iturri batzuen bidez aldaketa hau egiaztatu ondoren.

2. Ahozko hizkuntzan "h" a ahoskatzen ez denez eta gure lana ahoskotatzen den lekuko denez, ikusiko duzuen moduan, hitzak eta adibideak "h" rik gabe papeleratu ditugu.

3. Azkoitiko hizkeran "s" eta "z" hizkiek antzeko ahoskera dute. Hasiera batean, hitzez-hitz bereizketa hori egiten saiatu ginen, baina emaitz argi eta garbirik lortu ez genuenez, hitz guztiak euskara batuko ereduaren duten forma mantenduz eman ditugu.

4. Antzeko zerbait gertatzen da "ts", "tx", eta "tz" rekin. Hiru kasu horien bereizketak askotan ziurtasunik ez izatera eramaten gaituenez, euskara batuko eredu bateratuari heldu diogu, nahiz eta Azkoitian "ts" aren erabilera gutxienekoa izan beste bienarekin alderatuz gero.

5. Hainbat hitzetan "f" nahiz "p" aurki dezakegu, bai hitz hasieran baita tartean ere. *Adibidez:* apaixe- afaixe.
piñe-fiñe.

Horregatik, hitz horien kasuan bi sarrera eman ditugu edo gutxienez bietariko nagusiena aipatu dugun kasuetan, beste erabileraren aipamena ere egin dugu.

6. Euskalki eta hizkera ezberdinetan gertatu ohi den moduan, gurean ere hitz berdin batek esanahi ezberdinak izan ditzake. Esanahi ezberdinetatik, batzutan, bereziena aukeratu dugu edo gure ustez interesgarriena. *Adibidez:* Buru aundi, buru aundixe. 1. Buru handia
2. Ume jaio berria.

Lehen adiera hizkera gehientsuenetan antzerakoa izanik, bigarrena iruditzen zaigu interesgarriena edo aipagarriena.

7. Hitz berdinen mugagabeko formatik mugatura pasatze-rekoan ere gauza aipagarriak ikusi ditugu: "-ue" amaiera duten mugagabeak, mugatuan "-o/-u" alternantzia erakusten dute. Horrek esan nahi du hitz bera bi era desberdinetara entzun daitekeela. *Adibidez:* Burue – Buro/Buru. Era berean, mugatuan "-oi" amaiera duten zenbait hitzek, mugatuan "-oe/-o" alternantzia erakusten dute. *Adibidez:* Butroi – Butroe/Butro.

8. Aurkitu dugun beste berezitasun bat honako hau izan da: "i" bokala konsonante sabaikari baten aurrean agertzen denean [-tt], [-ñ], [-x] eta [-ll] hitz bera bi eratarara entzun dugu: bokal hori zenbait kasutan ahoskatu egiten da eta beste zenbaitetan ez. *Adibidez:* aitte – atte, geixo – gexo,...

Guk aukeratu dugun forma "i" duena izan da nahiz eta tartean bestelakorik ikusi.

A

Abanta(ra), abanta(r)ie. Abantada, abiada. "Nik arrapatzemañat orrek eman ber din abantarie".

Abanzau, abanzaue. Aurreratua. "Bere edadeako naiko abanzaue zan eskolan".

Abarkazale, abarkazalie. Alpargata egilea. "Abarka-zalin dendan izen gaittun, gauze berrixek ikusten".

Abarketa, abarketie. Alpargata. "Majiñe bat abarketa josittekue naun ni".

Abarketero, abarketerue. Alpargata egilea. Ikus abarkazale.

Adar, adarra. 1. Zenbait animaliaaren buru aldeko luzakina.
2. Zuhaitzaren enborretik ateratzen diren besoetako bakoitza. 3. Zakila.

Adur, adurre. Zortea, zoria. Normalean zorte txarraren esanahia hartzen du. "Pasa dan urtin ama, oiñ atte, guk daukeu adurre guk!".

Afai, afaixe. Afaria. "Aspaldixen gaurko afaixen bezelakoik ezteu bota".

Afai-lege, afai-legie. Gauza gutxirekin egindako afaria. "Ni, normalin, afai-legie eiñ da listo".

Afai-paxara, afai-paxa(r)ie. "Dutxau, afai-paxarie eiñ da belaxe nauk kalin berriz". Ikus afai-lege.

Afaittea. Afaritara. "Axek onuzkeo afaittea jun die".

Afan, afana. Zerbaitetarako gogo handia. "Orrek izeteu ara juteko afana!".

Afaneko, afanekue. 1. Afana erakusten duena. "Ni ona afaneko etorri tte danak muturtute topatzie, ezta earra ba!". 2. Pertsona bati buruz ederra dela adierazteko. "Bere illien tirabuzoiekin, rubia-rubia, preparaute jartze zan, bere soiñekukin, afaneko bat zaeuen".

Aga, agie. Egurrezko makila luzea. "Mutill orrek balontzeztan jokau leike, agie aiñe lueze bada ta".

Agañ, agañe. Ardiak izaten dituzten arkakuso modukoak. Ikus arkakuxu. Ikus bakasta.

Agoni kanpai, agoni kanpaie. Norbaiten heriotza iragaritzen duen kanpai hotsa.

Agoni, agonixe. Norbait hilzorian dagoenean. "Atzenengo egunetan makalik ta agonixen eon tzan".

Agrarie. Baserritarrek Eusko Jaurlearitzari ordaintzen dioten nekazal zerga.

Ai, aixe. Ahia. Irina egosiz egiten den orea.

Aide, aidie. 1. Norbaiten edo zerbaiten antza izan. "Nik atten aide bat badezula esango nuke ba". 2. Gorputz barneko airea. "Miñekin nabil, eztakitt, aiden bat eo izangoa...".

Aidin. Airean. "Berriz eongo gaittun irekin bildurrez aidin".

Aille(g)au. 1. Heldu, iritsi. "Falta zinak e alleau die". 2. Aditzera eman, adierazi. "Etxie saltzeko asmue re aille-au ziuben".

Aingeru, aingerue. 1. Jainkoaren mezulari eta zerbitzari gisa dabilizan espiritu hutsak. 2. Umetan hiltzen dena. "Oñe jun da aingeru bat gure artetik".

Aiotz, aiotza. Aihotza. Igitaiaren antzeko tresna, baina txikiagoa. Sasiak kentzeko erabiltzen da.

Aittau. Aitatu, aipatu. "Ezkondur ber dunik ez du beintzet aittau".

Aittu. 1. Entzun. "Atzo plazan bandie aittu nun". 2. Usain hartu. "Neure buruei, izerdi usaixe aitze zonat".

Aixe, aixie. Harrokeria. "Ori aixie daukena orrek lanin asi danetik". 2. harroa.

Aixetute ibilli. Harrotuta ibili. "Azken bolaran aixetute dabil gure ori, edadin kontuk izengoie".

Aixkirau. Adiskidetu, haserre egon ondoren lagun izan berriro. "Asarraute al tzabiltze? Zeuretzat okerro! Gero aixkirau eiñ ber!".

Aixkire, aixkirie. 1. Laguna. "Amen al ao, aixkire!". 2. Senargaia edo emaztegaia. "Onuzkeo aixkiren bat izangozu, Bilbo alde ortan."

Aize ixkutu, aize ixkutue. Haizeak jotzen ez duen tokia. "Amentxe jangoiau bokadillue, aize ixkutun".

Aizko torradak. Ahiz eginiko ore frijitua.

Aizpetzako, aizpetzakue. Ahizperdia. "Nere aizpetzakue, gurekin bizi zan bolara artan".

Akaau. Berez hil. "Txakurre akaaute topau det goizin".

Akabaramos! Falta zena!

Akao ba! Falta zena! "Zeu ezpazea etortzen, akao ba!". Ikus akabaramos!

Akarna. Tortoloxaren alde bat. Ikus tortolox.

Akaso. Beharbada, agian. "Ez natxion seguru, akaso azaldukoittun".

Akixo. Umeak beldurtzeko mamua. "Ez bazu lo artzen, Akixo etorrikoa".

Akolitto, akolittue. Akolitoa, eliz mutila. "Parrokixen akolitto izendekue da aure, majiña bat urte".

Akuerdun. Ikus gure akuerdun.

Al(d)rebes, al(d)rebesa. Zer baitetan iaioa ez dena. "Alrebesa aiz ba motel. Nola sinistu uan gezur ori!".

Alasa. Sukaldeko apala, platerak eta ontziak gordetzekoa.

Albandorratz, albandorratza. Orratz handia. "Albandorratza ber omen diñabe eskolan josteko".

Alberdau. Albardatu.

Alberretxiko, alberretxikue. Mertxika. Muxurkak baino handiagoa den fruta bat.

Aldapa, aldapie. 1. Malda, aldatsa. "Egunero ixo ber iza-teu Sansebastiñeko aldapie". 2. Presako ura eramateko ubidea. Andapara. Eliz aurreko zubipean presa zegoenean, hala deitzen zitzaion.

Aldau. 1. Trukatu, aldatu. "Eon ai! Momentu batin erropie aldau ber diñat". 2. Landareak landatu. "Egualdi ona ettebau aste ontan porruk aldau berkottou".

Aldekotxe. Konparaketetan, egoera hobeagoa azaltzeko. "Aldekotxe bizi nauk oiñ!". Ikus igualekotxe.

Aldemen. Alboa. "Eure aldemenin daonai galdeu berkoixon".

Aldemeneko, aldemenekue. 1. Albokoa. "Zein da zure aldemeneko xeibre ori?". 2. Auzokoa. "Joxe ez altzan zuen aldemeneko, zuen aldemenin bizi zana?".

Ale, alie. 1. Hazia. "Alie usteldu einzat". 2. Hainbat gauza-ren zati biribil antzekoa. "Olakotxe txingor alie bota zian". 3. Karta jokuan, puntuak adierazteko. "Jaso alie!". 4. Banakoa. "Maxixatzenen azken alin eittexobe entrebistie". 5. Handia, neurritz kanpokoa. "Ori neska alie daona zuen txikiñe".

Algadoi, algadoie. Algodoia. "Algadoizko alkonda ori gustokue det". Ikus guata. Ikus kotoi.

Algara, algarie. Barre oihua. "Jendin algarie Azpeittiko plazatik aittu zala esatebe".

Alkar artu. Elkarrekin aritu zer baitetan, normalean beste baten edo batzuen kontra. "Kasoik ez, bi oxek alkar artute zauden da".

Alondiga, alondigie. Biltegia, batik bat ardoarena. "Erriko ardo lekue, alondigie, ta barrikak eote zin, andixek!".

Alper, alperra. Soroetan erabiltzen den tresna, harrizkoa eta zilidro formakoa, lurra gogortuta dagoenean jotzeko.

Alperrarri, alperrarrixe. Ikus alper.

Alperrin egon, izan, bizi. Ezer egin gabe egon. "Alperrin bizi da, eun osue ezer eiñ gabe".

Alperrontzi, alperrontzixe. Oso alperra denari buruz esaten da.

Altzar, altzarra. Saihetsaldea. "Beti eon oi da altzarreko miñez".

Alu, alue. Interjekzio peioratiboa. "Alu ori! Nik arrapatzemaui!".

Ama. 1. Ume bat edo gehiago izan duen emakume edo animalia emea. "Aman zai geldiuko naiz xeirek arte". 2. Ume jolasetan, epaile lana egiten duena. "Zein da ama?".

Ama/atte besotako, ama/atte besotakue. Ama/aitabitxi. "Nere ama besotakue Miren da".

Ama/atte puntako, ama/atte puntakue. Ama/aitabitxi. "Atte puntakuek erregalo ederrak eittetxit urtetan." Ikus ama/atte besotako.

Amabiko aundi, amabiko aundixe. Ehizarako eskopeta. "Amabiko aundixe artute or jute zan jaiero".

Amalaun, amalaune. Armiarma-sare, haria batez ere.

Amatzako, amatzakue. Amaordea, ugazama.

Amazulo, amazulue. Beti amaren ondoan egon nahi izaten duen umea. "Bittorren umie amazulo earra dao einde".

Amen. 1. Kristau eta juduen liturgian otoitz batzuen bukareran esaten den hitza. 2. Hemen. "Amen etorri zin danak, famili guztixe artute".

Ames, amesa. Amets. "Gaur gabin e majiña bat ames eiñ dittut".

Ameto eman. Onartu, amore eman. "Koldok etzun onartzen bea izentzala Mirenen motxila puskau zuna, bañe azkenin ameto eman ber izentzun, beai botatze zizkoben kulpek eta".

Amona mantangorri, amona mantagorrix. Marigorrin-goa. Gaina gorria eta zazpi puntu beltzekoa duen in-tsektua. "Amona mantagorrix ezaldu ezkeo, eurixe izete zala esate gendun txikitten".

Amor ederreko, amor ederrekue. Maitakorra. "Pareja ori ziero amor ederrekue da".

Amorrau, amorraue. Zalea, joera handia duena zerbaite-tarako. "Jone amorraue da liburu letzen".

Amorraute. 1. Haserretuta. "Oiñ e bazun kejie, or jun da amorraute". 2. Gogo biziz. "Kalea erten orduko taberna zuloa juteie amorraute".

Amorrazi. Amorrua eman, eragin. "Ezizu geixo amorrazi, kixkeldute nabil da!".

Amortzau. Gosaldu. "Gaur goizin presaka ta amortzau gabe aldein diñat etxetik".

Amortzue, amortzu. Gosaria. "Goizero elkarrekin artze deu amortzue".

Anaitzako, anaitzakue. Anaiordea, ugazanaia. "Gure anaitzakue Ameriketa jun tzan artzai".

Andabide, andabidie. Kanposantuko bidea. "Andabidie artu ta goratxuo daukebe baserrixe".

Andamaxo, andamaxue. Aldamiaoa. "Andamaxo gañin eote zan lanin gure attitte, igeltsero ibilli zan da urte askun".

Andapandango ibilli. 1. Adar joka ibili. "I andapandango al abil? Nei ez tik sartuko, e...". 2. Festa giroan ibili. "Oiñ e emen gatxabilten, kalin andapandango".

Andarikunin ibilli. Zoratu beharrean, batera eta bestera ibili. "Zure atte au dala ta ez dala, andarikunin ibilli naiz egun guztixe".

Andera, anderie. Panpina, andrakila. "Olentzerok andera berrixe ekarri dit".

Andi aurkixek. Haundienak. "Ganbarie garbiu gendun ta andi aurkixek beintzet kendu giñuzen".

Andiki, andikixe. Handikerian ibiltzen dena. "Beti izen da andikixe, ta oiñ dirue daukela, geixo".

Andra, andrie. 1. Emakumea. "Makiña bat andra zabilten kantun". 2. Emaztea. "Andrie ta bixok jun giñen bazkaire".

Anea, aneie. Anega. Pisu neurri zaharra, 48 kg.

Anerdiko, anerdikue. 24 kg.

Angulero, angulerue. Integristen artean izaniko barne zati-keta baten ondoren alderdi bateko jarraitzailea. "Integruak beren artean asarrerren bat izan zuten eta alde batetik soperuak eta bestetik buruluxeak edo anguleruak gelditu ziran banatuak". (Nemesio Etxaniz, 1992).

Anime, animie. 1. Arima. 2. (Emakumeekin bereziki) Odolik gabeko pertsona isila eta ahula. "Animie bezelakue da neska ori, emateu eozein momentuten eroikola". Ikus mistika tulisabelika.

Anka joko, anka jokue. Ihes egin. "Arek ibilli zian anka jokue ikusi gendunin".

Anka miñez ibilli. Herrera eduki. "Gure ardi ori astetan dabil anka miñez".

Anka(g)aiñ, anka(g)aiñe. Oingaina. "Deportiba berrixen sokak ankaaiñin miñe emateibe".

Anka-motza. Hanka bakarra. "Gure Fermin mutil zarra anka-motza geldiu zan gerran".

Ankagorri, ankagorrix. 1. Ume jaio berria. "Nun dabil gure ankagorrix?". 2. Itsaskia. Otarrainska, ganba eta horrelakoak. "Ankagorri batzuk eskaukoiteu asteko".

Antijo, antijuk. Betaurrekoak. "Nik betittik ibiltzeittut antijuk, eztet ondo ikusten da".

Antiueleko, antiuelekue. Aspaldikoa. "Antiueleko kotxin erakusketie dao Loiolan".

Antoja(g)arri, antoja(g)arrix. Nazkagarria, aspergarria. "Ene! Antojagarrixe aiz ba!".

Antojue eman. Nazka eman. "Ikusitte bakarrik antojue emate zin tipo orrek".

Antuxun, antuxune. Antosin, metalezko katilu kirtenduna. "Artu mendireko antuxune motxilikin batea".

Antxintxikalai, antxintxikalaixe. Korrikalaria. "Antxintxikalai bakoitze bere laguntzaillie ingurun tzula jute zan bire osun".

Antxintxike. Korrika. "Aure ikusitte, antxintxike eittie nai ta ezin mobiu sustun sustukin".

Ao bero, ao berue. Hizketan gehiegizkoa. "Ao berue aiz ba, ori zeñek sinistukoin ba!".

Ao zikiñ, ao zikiñe. Biraoak sarri esaten dituen.

Ao, aue. 1. Ahoa. 2. Zubiaren ahoak. "Jausoroko zubixek bi aho iguel zeuzken".

Aoka, aokaie. 1. Ahoa janariz beteta dagoenean. "Ikkutaizak aoka ori!". 2. Gehiegikeria, handinahikeria, birao hotsa. "Ori dek aokaie ori bota dekena!".

Aopeka. Ahots isilean. "Beti aopeka ai zea ta etzatzu eze entenditzen".

Aori, aorixe. Ahoria. Herpesa. "Ankatan aorixe omen dauke".

Aotik aittu. Ez entzun. "Ik ze, aotik aitzealde ala?". (Esaera bezala erabiltzen da eta beti galderetan).

Apai, apaixe. Afaria. Ikus afai. "I jun aurretik, apai kokkor bat eiñ berko diau ba?".

Apajo, apajue. Aparejua. Pertsona bihurria, trastoa. "I aiz i apajue!". Ikus Arraxe izen.

Apapa. 1. Umeen hizkuntzan, kalea. "Apapan al zabilzte?". 2. Pikutara joan. "Jun ai apapa!".

Apartaute. Dibortziatua.

Apenas. 1. Normalean baiezkoan, "berehala" esanahiarekin, ezezkoa adierazteko. "Apenas inor etorrikoan". 2. Gutxi. "Apenas ezer aurreau deun".

Apite. Iaioa. "Aure bai zala apite... bandie dirijitzen".

Aplikau. Gertatu, suertatu. "Ikusiko ez gendun ba, antxe aplikau giñen da!". Ikus portunau.

Apo, apue. Txerri ar zaharra.

Apona. Tortoloxaren alde bat. Ikus tortolox.

Apopillo, apopillue. Ostatu hartuta dagoen pertsona. "Billarrealen lanin eon giñen bittartin, axen etxin eon giñen apopillo".

Apro(b)a, apro(b)ie. Froga. "Pelota onekin aprobie eittekotan nao".

Aproau. Probatu. "Pelota berrixe aproau ber deu gaur goiz in Kontsejupin".

Apropos. 1. Nahita. "Apropos eñ diat". 2. Txantxetan.

Apropostako, aprostakue. Gezurretakoa, baliorik gabekoa. "Kromo onek eztu balixo, apropostakue da".

Apropostan. 1. Nahita. 2. Txantxetan. "Apropostan esan dizut gezur ori". Ikus apropos.

Apuntei, apuntexe. Punteria, begi ona. "Orrek zaukeik apuntexe, beti asmatzeik bere eskopetikin".

Aragi etena. Giharra etetea. "Fuelin ai nitzela aragi etena eñ tzat".

Arako. Halako. Normalean pertsona ezaguna izaten da. "Arako sartze al tzan etxea, dierka ekitte zin".

Arbazta, arbaztie. 1. Adar xeheak. 2. Ura aurkitzeko erabiltzen den kako itxurako adarra.

Arbztadun, arbztadune. Ura bilatzen duen pertsona. "Gure garaxen, arbztadune ibiltze zan ur potzu bille."

Arbi, arbixe. 1. Sustrai mamitsuko baratze landarea. "Gaur goizin jaiki ta arbi jasotzea jun naiz beixei jaten emateko eun batzuten". 2. Alaia. "Maria bai dela pertsona arbixe, beti parrez ai da".

Arda(g)ai, arda(g)aixe. Zuhaitz batzuen gerrian, pagoe-tan batez ere, hazten den onddoa, sua egiteko eta erretzeko erabili izan ohi dena. "Etxe arek ardagaixe bezela artu zun sue".

Ardae, ardaxe. Iskanbila, zarata. "Patxik eta Anttonek atzo pelota kontun itz eitten asi ta azkenin asarraute ikeraar-rizko ardaxe euki zeбен".

Arena, arenie. Hondartzako hondarra. "70 urtekin zapaldu nun lelengo aldiz arenie, illobakin junde plaire".

Argi eñ, eman. Ironiaz, "ederki eman" esanahiarekin erabiltzen da. "Argi eingou arek ainbeste ume artin".

Argiinder, argiinderra. Elektrizitatea. "Gabonetan argiinderrik gabe eon giñen gau osuen".

Argizai, argizaixe. Erleei darien gai horixka, egurrari eta altzariei emateko eta kandelak-eta egiteko erabiltzen dena. "Leno, sapaturo, etxin argizaxei emate zan lurre garbitzeko".

Argizaxe eñ. Zerbaiti argizaria eman. "Entradan ta transi-tun argizaixe einde dao".

Ari-joko, ari-jokue. Ahari burruka. "Ari-jokue ikustea jun diz Azpettire".

Arire plantxau. Gaztelerazko "planchar al hilo".

Arixo. Kiribila. "Tornillo onek arixo galdute zaukeik".

Arjo, arjue. Sagarrak barruan edukitzen duen arra. "Sagar oxek arjuek jota zaudek onuzkeo".

Arkakuxu, arkakuxue. Arkakuso, kukuso. "Txakurrei arkakuxuntzat kollarie erosi nixon Donostixen".

Arkazta, arkaztie. Urte batetik bira bitarteko ardi gaztea. "Arkazta ori re anka miñez dabil aspaldixen".

Arkea. Ardia arreske dagoenean.

Arkume, arkumie. Hiltzeko lagatzen den ardi gaztea. Ikus bildots.

Armarra sare, armarra sarie. Armiarmak insektuak harrapatzeko egiten duen sarea. "Ganbarie armarra sarek betata eotea beti".

Armato, armatue. Azkoitiko prozesioetako soldadu erro-matarra. "Imanolek, urtero ertetzeu armato".

Arra, arraie. Marra. "Arra ortatik ez pasatzeko esandiube".

Arraixe izen. Badaezpadakoa. "Ori dek arraixe!". Ikus apajo.

Arrallau, arrallaue. Ogia. "Ogi arrallaue ekarri zu, kroketak preparatzeko".

Arrantza, arrantzie. Astoaren orroa. "Gure astun arrantzie auzoko beste puntetik aitze zan".

Arrantzu, arrantzue. Arrainak harrapatzea. "Dukeko errekan ibiltze giñen arrantzun".

Arraska, arraskaie. Lerroa. "Idazlaneko lenengo arraskaieen titulue idatzi ber da".

Arraska, arraskie. Garbiketak egiteko aska. Fregaderoa. "Gure etxin daon arraskie etzan bakarrik platerak garbitzeko ibiltzen, erropak e antxe garbitze zin".

Arraskau, arraskaue. Benturatzen den pertsona. "Oxek arraskauek zien, gu ez giñen tabernan sartzen geizki ikusitte zaolako garai artan".

Arrasta, arrastaie. Urradura. "Txikitten bizikletatik eroi ta eundoko arrastaie eiñ nun belaunin, ondik markie or dauket".

Arrasto, arrastue. 1. Aztarna. "Txakurrek odol arrastuei segiu zixon". 2. Lurrean egindako ildo. "Bizikletak pasau dizelako dao emen arrasto au".

Arrastun sartu. Bide zuzenean sartu. "Bazan garaxe gure ori arrastun sartzeko, kostau zikon bañe".

Arrautze koxkau, arrautze koxkaue. Pitzatua, kolpea duen arrautza. "Diruik ez gaukegendunantzat arrautze koxkauek izete zin".

Arrautze loka, arrautze lokie. Arrautza ustela.

Arraxkau. Benturatu. "Pelota oixetan arraxkau eiñ ber da".

Arrebatzako, arrebatzakue. Arrebaordea. "Bere arrebatzakukin urtetan eztu itzik eiñ".

Arrezkeo. Ordunik. "Aktuaixo ori arrezkeo, koruk tare eindebe".

Arri, arrixe. 1. Harria. "Arrixe bota ta leixue puskau gendun". 2. Txingor gogorra. "Arrixek batza guztixe ondau digu". 3. Zoritxarra, kaltea. "Au den arrixe etorri zakune aure etxetik jun dan ezkeo!". 4. Haxis harria. "Bixontzako moroko arrixe pasau dibe".

Arrike bota. Amorratute zerbait botatzen denean. "Telefonue arrike bota zun".

Arrike ibilli. 1. Harri botatzen ibili. "Beti beste auzokukin arrike ibiltze giñen". 2. Pelotan jokatzeko era bat. Pelota jo beharrean eskuan hartu eta txapa gainera botatzen da. Bestela, esku pelotaren arau berberak ditu.

Arrimau, arrimaue. Dantza heldua. "Musikeruei arrimaue eskatzea jun da".

Arrimaute. Juntatuta. "Urtetan arrimaute bizi izen giñen ta geo ezkondu".

Arritxontxor, arritxontxorra. Harritxirria. "San Juneko fuel kanpue arritxontxorrez beteta dao".

Arrixkau. Benturatu. Ikus arraskau.

Arro, arrue. Harroa. "I aiz arrue!".

Arroba, arrobie. Arroba, hamabi kilo eta erdi.

Arroputz, arroputze. Harroa. "Oi baino pertsona arroputzoik eztet ezautu nere bizixen, beti bere diruatik itz eitten ai da". Ikus arro.

Artaganbara, artaganbarie. Artoa gordetzeko mandioa.

Artamoruz. Edozein moduz. "Presaka ibilli giñen ta lanak artamoruz bukau re bai".

Artesne, artesnie. Ardi esnea. "Plazaberduran artesnie artu ta bale naiz".

Arto, artue. 1. Artoa. 2. Artairinaz egindako ogia. "Gure etxin len beti artue jate zan".

Artojoixe. Artaburuak jotzeko tresna.

Artxango, artxangue. Aste Santutan, santuak eramateko erabiltzen den haga sendoa.

Artxara, artxarie. Behiei jaten emateko saredun aska. "Belar parduk ekarri artxarie betetzeko".

Aska, askie. Abereei janaria jartzen zaien kaxa-moduko ontzia.

Aspel, aspela. Gurdira jasotzeko eskuareak eta hankaz lagunduta egiten den belar pilo betea.

Astakerten, astakertena. Astapotroa, majaderoa. "I ze astakerten aiz moteill!".

Astanaparrei, astanaparreixe. Baztanga. Ikus naparrei.

Astapaola, astapaolie. Ahoz esaten den astakeria, ahokada txoroa.

Astapotro, astapotrue. Astakirten, majaderoa.

Astegun buruzuri, astegun buruzurixe. Asteko barruko eguna. "Astegun buruzurixen jute zin axek kanpoa afaltzea".

Astelen, astelena. 1. Asteko lehen eguna. 2. Biharamuna. "Atzo apaixe euki giñenan ta amen natxion astelen galantakin".

Astorau. Norbere onetik irten. "Ez takitt ego aizie eo zer dan, baiñe ziero astorau da".

Astoraute. Bere onetik aterata. "Txakurre dana astoraute dao aspaldixen".

Ata. 1. Atera. "Ataiztek sei zurito pute!". 2. Futbolean alboetatik erdialdera egindako pasea. "Ataik baloie azkar!".

Atala. 1. Zatia. "Inglesin bakarrik lenengo atala ikusikou". 2. Fruta atagarri baten zati bakoitza. "Naranja atal bat emango al dizu?". 3. Sakona ez den platera. "Ataizu plater sakonak ta atalak".

Atezai, atezaixe. 1. Sailak isteko ateei deitzen zaie. "Azkenak atezaixe itxi!". 2. Mendiko hesietako pasoa. "Atezaixe gañetik pasau giñian beste aldea juteko".

Atezie. Ikus atezai.

Atsalde, atsaldie. Arratsaldea. "Atsaldeako gerau naiz".

Atte. Aita. "Ikusikok atte etortzeanin!".

Attetzako, attetzakue. Aitorde, ugazaita.

Attezulo, attezulue. Beti aitarekin egon nahi duen umeari esaten zaio.

Attitte mendikoteko, attitte mendikotekue. Kakarraldoa.

Attitte. Aitona, aitita. "Aittitteen ibilli nitzen lelengo aldiz trenin, Loiolaño jun giñen".

Atxakar, atxakarra. Hatz txikia. "Atxakarrakin sakau berdezu a letra ordenadorin".

Atxakarren, atxakarrena. Hatz txikia. Ikus atxakar.

Atxiki jo. Pilota helduta jo, hartu eta bota.

Atxo paolak. 1. Marmarrak. "Oin e ai dittuk oxek taberna zulun jarritte atxo paolan". 2. Lelokeria. "Atxo paolaik ezizan bota!".

Atxo, atxue. 1. Emakume antzua. 2. Emakume heldua. Gehienetan "zahar" izenlaguna duela atzetik. "Atxo zar orrek esan tzik". 3. Neska-laguna. "Etzakiat juteik izan-gotan, nere atxuei esan berkozoat lelengo". 4. Neska gaztea, ederra dagoenean. "Ori atxue billau duna Mikelek!".

Atxulo. Tortoloxaren alde bat. Ikus tortolox.

Atxumurke eiñ. Atximurka egin, zimiko egin.

Atxumurke, atxumurkaie. Atximurra, zimikoa. "Umik atxumurkaie eintzin zaitzen ai nintzela".

Atxur, atxurre. 1. Soro eta baratzerako tresna. "Zuluk atxurrekin eingotteu". 2. Bizarra kentzeko makina ez elektrikoa. "Naixo det bizerra atxurrekin kentzie". 3. Mozkorra. "Ori atxurre daukebena bi oxek".

Atxurre arrapau. Mozkorra harrapatu. "Ori atxurre arrapauko zuna, ardo goxo ori dana eran bazun".

Atxurtu. 1. Atxurrarekin lur sail bat harrotu. "Gaur lurre ondo atxurtu diau ta bier landauko txiau landau berrekuk". 2. Mozkortu. "Gaur gauin e atxurtute ibillikoa". 3. Zerbait ondo aztertu, arakatu. "Ximonen geroko bizitzan sakonago atxurtzeko, Azkoiti-Azpeitietako giroa ta aidea erakutsi nai genituzke". (Nemesio Etxaniz, 1992).

Atzamar, atzamarra. Eskuko hatza. "Kenduitzak atzamar oxek nere gaiñetik!".

Atzapar, atzaparra. 1. Zenbait piztiaren kako-azazkal zorrotz eta gogorra. 2. Pertsonen eskua, handia denean. "Atzapar oxekin beintzet ondo eutsikoxo umiei".

Atzaparka eiñ. atzamarkada egin. "Katakumie artzen saxau ta atzaparka eiñ tzin".

Atzaparka, atzaparkaie. Atzamarkada. "Asarratzeanin, dale, arrapatzeunai atzaparkaie".

Atze-aurrerie eiñ. Joan-etorria egin. "Guk sapaturo eitteiau baserrire atze-aurrerie". "Elizkizun luzeak ziran orduko zinerik ederrenak, eta Loiola-aldera atze-aurreria egitea (ala esan ohi da joan-etorria Azkoitian), jai arratsaldeko entretenigarrik aundiena". (Nemesio Etxaniz, 1992).

Atze-bikotxa. Ipurtandia. "Ardi au bai daola atzebikotxa!".

Atzea. 1. Berriz. "Aldein da atzea etorri zan". 2. Atzera. "Botaik atzea kotxe ori!".

Atzelai, atzelaixe. 1. Pelotan, atzeko koadroetan jokatzeko duen pelotaria. 2. (Iraingarria, gizonezkoekin soilik) Atzelaria, homosexuala.

Atzena. Azkena. "Asko zaxau arren, atzena allau zan". (Atzena eta azkena, biak erabiltzen dira).

Atzik. Ipurdiak. "Atzik ta aurrik, ziero gizendu zaizko".

Aulki, aulkixe. 1. Eserlekua. 2. Behiak jeisteko erabiltzen den eserlekua. "Aulkixen nik beixek jeizteittut, eta sillan bazkaldu eittet". 3. Aulki luzea. Ikus silla.

Aure. Hura. (Aure eta are, biak erabiltzen dira). "Aure bai zala mutil earra".

Aurrea jun. Frontera joan. "Gerrie etorri zanin, axek aurrea jun tzin".

Aurreako laa. 1. Gerorako utzi zerbait. "Lana aurreako laa gendun". 2. Ganadua hazteko utzi. "Bei au aurreako laako deu ta beste au matadeire emangou".

Aurrerau. 1. Aurreztu. "Nik gaztetan oiñ baiño diru gexo aurreratze nun". 2. Aurreratu. "Diru bat aurrerau dioxebet langilliei".

Aurrik. Aurreak, bularrak. "Aurrik operatzie erabai diñet".

Auspez. Behera begira etzanda egon. "Ni plaxen beti auspez eote naiz, bestela erre eitte naiz da".

Auzixen ibilli. Balantzan ibilli. Kili-kolo.

Aza gorri, aza gorrixe. Lonbarda. "Plaza berduratik aza gorrixe ekarri ber det".

Azal, azala. 1. Gorputzeko azala. "Urtik pasaute re azal fiñe zauken gure Anttonik". 2. Ez sakona, urria. "Azaleko kontukin zabiltzete beti".

Azaostro, azaostrue. Tontolapikoa, artaburua. "I ze azaostro aiz!".

Azkarri, azkarrixe. Legamia. "Zenbat azkarri botatzeixozue ogixe eitteko masiei?".

Azkordiñ, azkordiñe. Ospela. "Negun bietzak azkordiñez beteta eukitzettut".

Azpantar, azpantarra. Zaku edo oihal zaharrez egindako polaina modukoak.

Azpixek atea. Ganaduari bere egitekoak garbitu. "Ganauei azpixek ateatzeko ordue dek oiñ".

Azpixek eiñ. Ganaduari ohea prestatu. "Ganauei azpixek eiñ da kalea nitxin".

Azpizar, azpizarra. Eskuetako azazkalden inguruan altxatzen den azala da. "Arratsaldin bietzetako azpizarra kentzen eon naiz".

Aztarran, aztarrana. Aztarna, arrasto. "Nun dabillen aztarranik ez tauket".

Aztarranik ez! Ideiarik ere ez! "-Nun tzabillek lñazio? - Aztarranik ez!".

Baba beltz, baba beltza. Baba mota bat. "Baba beltza zauen earra plaza berduran".

Baba gorri, baba gorrixe. Baba mota bat. "Aurtengo babajanin, babagorrixe neuk ekarrikotxiñat".

Baba zuri, baba zurixe. Baba mota bat. "Baba zurixe baiño naixo bestik aukeran".

Baba, babie. 1. Leguminosen familiako baratze landarea
2. Larruazalean sortzen den handitu urtsua eta ondorengo gogorgunea. "Mendiko bota berrixek kriston babie eindibe bietz potolin".

Baiba? Baietz? Espero dugun erantzuna baiezkoa denean. "Gurekin etorriko zeala? Baiba?"

Baikutz, baikutze. Kalte egiten duen aberea bahitu, gero jabeak kalteak ordain ditzan. "Beeko baserrikui baikutze eindixobe".

Baillera, baillerie. 1. Auzoa. "Martitte bailleran bizi die axek". 2. Harana. "Urola ballerie earra da gero!".

Baitte. Baita ere. "Mendire jutea baiñe baitte plaire".

Bajiña bat. Asko. "Bajiña bat pertsona zan atzoko entierrun".

Bajiñe bat. Asko, ugari. Ikus majiñe bat.

Bakaillau, bakaillaue. 1. Arrain mota bat, bakailaoa. "Atzo arrandeixen bakaillaue erosi gendun prezixo onin". 2. Heroina. "Orrek bakaillauei emate zioz latz". 3. Musika mota. "Oingo gaztik bakaillaue besteik eztu aitzen".

Bakasta, bakastie. Ardiek izaten dituzten arkakusoen moduko zomorroa.

Bal(t)sio, bal(t)siue. Dantza lotua. "Balsiun eittezunak multie zauken ordun, bakarrik sueltun eitte zan".

Baldar, baldarra. 1. Traketsa. "Ni oso baldarra izen nauk beti kirola eitteko." 2. Borra handia. "Mandixotiken ekarri zu baldarra".

Baldinbaitte. Baldin baitere.

Baleko, balekue. Nahikoa edo konforme egoteko modukoa. "Ori ez nian ber, baiñe momentun balekue dek".

Banaute. 1. Dibortziatuta. 2. Separatuta. "Daoneko banaute ezbaudek, asmukin bai beintzet".

Banauteko, banautekue. Dibortziatua, apartatua. "Bere gurasuk aspaldi banautekuk dittun". Ikus apartaute.

Bapo. Nahikoa, ondo. "Bapo bazkaldu diau gaur".

Barik eldu. Flatoa. "Barik eldu ezkeo, arri bat artu eskun ta ikusiko zu ze azkar pasatze zatzun".

Barra, barrie. Pertsonak izaten duten ikutu berezia. "Ori barrie daukena orrek!".

Barra-barra. Ugari, asko. "Onak dirue barra-barra gastatzeu".

Barratsu, barratsue. Xelebre aldiak izaten dituen.

Barren. 1. Praka beheak. "Praka barrenak moztea eman dittut". 2. Baina. "Ointxe jun ezta barren!". 3. Barrualdea. "Barrena bero bero einde bukau nun".

Barriñoi, barriñoie. Plastikozko ontzi handia, taberbernariak erabiltzen dutena. "Barriñoie botellaz beteta dao ta guazen ustea".

Barriñoiek eiñ, barriñuk eiñ. Barreñoetako ontziak antolatu. "Tabernie itxittekun barriñoiek ingo ditxiu".

Barruko erropa, barruko erropie. Aldagarria. "Amak medikuna juteko, barruko erropa berriek erosi ditxit".

Barruko estimintze. Nahigabea. "Barruko estimintzek eztitt lorik eitten lagatzen".

Barruko, barrukue. Negutegiko produktua. "Letxugie udaberrixen kanpokue eotea, ta oiñ, negun, barrukue". (Barro ere erabiltzen da).

Barruko-tristura, barruko-tristurie. Gogorik eza, malenkonia. "Ez tauket jateko gogoik, barruko tristurie dauket eztakit zeatik".

Bastante. Nahiko. "Bastante gustoa geldiu die".

Bat bittea. Erdibana egin, batez ere edariekin. " ! Zerbeza bat bittea atazak!".

Batu. Bildu. "Bazkal ondoren tomatik batu ber ditteu".

Batzu(b)i, batzu(b)ixe. Baratzuria, berakatzia. "Batzuixe beintzet bota dixo!".

Bazparere. Badaezpada. "Bazparere ogi geixo ekarri diñat".

Be(g)i-zorruk. Begiaren azpian gertatzen den ubeldura. "Ez det lo gutxi eiñ baina kriston bei-zorruk dauzket".

Be(g)i-zulo, be(g)i-zulue. 1. Begiaren azpian izaten den orban iluna. Ikus be(g)i-zorruk. 2. Jostorrotzaren zuloa. "Nere bistikin eztiñat asma-tzen arixe bei-zulun sartzen".

Be(g)i-zuluk. Begiaren azpian gertatzen den ubeldura. Ikus be(g)i-zorruk.

Be(g)iondoko, be(g)iondoko. 1. Kolpea. "Atzea beire nitxi-juan ta jirautekun kriston beiondokue artu nian atikin". 2. Kolpe baten ondorioa, ubeldura. "Kolpin ondoren kriston beiondokue geldiu zitenan".

Be. Gabe. "Oiñe, ezer be geldiu gea".

Bebarro, bebarrue. Portala, ataria. "Bebarroko giltzie galdu det".

Beirazun, beirazune. 1. Nork berak daukan begirada. "Mikelek oso beirazun zorrotza dauke". 2. Norbaitek bes-teari botatzen dion begirada. "Denbora osun mutil are zure beire euki zendun, kriston beirazunek bota zitzun".

Beire. Begira. "Esamiñetan albokun beire eote zan aure".

Bekatxo, bekatxue. Begi inguruan sortzen den garagar alearen tamainako handidura. "Bei ingurun bekatxo pillue erten zaizko".

Bekoki, bekokixe. Kopeta. "Beniton bekokixen pelotan ibilli leikeu lasai, kriston aundixe dauke". (Gaur egun gazteen artean kopeta ere asko entzuten da).

Bela. 1. Oraintxe bertan. "Bela etortzekue da". 2. Ezta pentsatu ere. "Jakín banu, bela jungo nitxian!".

Belar, belarra. 1. Belarra. "Aurten ez du euri asko eiñ ta gure zelaixen eztao belar askoik". 2. Letxuga. "Tomatie ez. Baiñe belar pixket jangot". 3. Marihuana. "Ori belar-rakin arrapau dibe".

Belar-ondo, belar ondue. Lehortutako belarra, ganadua-rentzako janari gisa erabiltzen da. "Bittuteko belar-ondue gelditzea or".

Belar-pardo, belar pardue. Lasto-zama. "Belar-parduk ekarri berkottou beixentzat, jatekoipe gelditzen ai die ta".

Belar-zulo, belar zulue. Belarra gordetzeko lekua. "Oiñ ai gea urrengo urteko negureko belar-zulue betetzen".

Belaunburo, belaunburue. Belauna. "Kolpin ondoren, belaun burue dana aundittute geratu zako".

Belaxe. Segituan. "Belaxe ekarrikotxiñat ire erropak".

Belina eiñ. Nonbaitetik, batez ere tabernatik, ordaindu gabe joateari deritzo. "Orrek leku danetan belina eiteu, diruik eztaukela esan ta, ala!".

Beltzak. Kartetan, txota, zaldia eta erregea. "Ik partitzena-nin, beti beltz mordue emateizten".

Belue, belo. Zazpiko urrea. "Belue tokau ezkeo eskoban, punto bat geixo".

Bendabala, bendabal. Hormak izerditan uzten dituen hai-zea. "Bendabala etorri zan eta bebarruko pareta dana blai einde laa ziun".

Bentana, bentanie. Leiho txikia eta kristelik gabekoa. Gehien bat baserri giroan erabiltzen da. "Bentanatik ostro mordo bat sartzeie aizie eitteunin".

Beñipein. Behintzat. "Beaxek etzin ixotzen, baiñe nere semie bajatzen zan beñipein". (Beñipein eta beñipein, biak erabiltzen dira).

Ber. 1. Behar. "Diru geixo ber det aste ontan". 2. Nahi. "Pusketa bat ber al dek?".

Berau. Zerbait uretan luzaroan eduki. "Narrue berau eitte zan".

Berde, berdie. 1. Kolore bat, berdea. "Jertse berdie erosi du". 2. Belarra. "Laster berdie jasotzen hasi ber deu, uda badator da!". Ikus belar 3. Letxuga. "Udan berdie baino jateko ederroik ezta eoten".

Berdekei, berdekexe. Lizunkeria. "Juan, berdekei geixo ezizak esan!".

Bereki, berekixek. Elkarrekin ondo doazenak, ondo konbinatuta. "Belarrittekuk eta eraztune berekixek erregalau dizte nere kuttunek".

Berko. Beharko, zer erremedio. "Dantzie akabau ta, trote etxea! Berko!".

Berna ezur, berna ezur. Hankezurra. "Fuolin jokatzan majiña bat berna ezurreko artutekue nauk".

Bertan Bilbo! Zerbaiten handitasuna edo edertasunagatik txundituta gelditu. "Je! Earra dek! Bertan Bilbo!".

Berue eman. Norbaitek kokotetik gora egitea. "Ik ematek berue, moteil!".

Besagaiñez pareta. Pelota munduan, distantzia jakin batetik pilotari emandako kolpea.

Besapeko bi pareta. Pelotan, horma bikoia egin.

Beso-motz, beso-motza. Beso bakarra. "Lanin azidentie euki zun aspaldi ta beso motza geldiu zan".

Besotako, besotakue. Norbait bere aitabitxi edo amabitxiari buruz. "Illoba dauket nik nere besotakue".

Beste espaloko, beste espalokue. Maritxua. "Beti pensau izen det, mutill ori beste espalokue zala".

Besuk tolostau. Besoak gurutzatu. "Ortxe geldiu zan besuk tolostau ta eze eiñ be".

Bete. 1. Arnasari buelta eman ezinda. "Pelotaixe bete eiñ da". 2. Jatekoz asea. "Eztet nai jateko geixo, beteta nao".

Beteta. Haurdun. "Miren beteta zion".

Betie izen. Zentzuduna, gehienetan ezezkoetan eta galderetan erabiltzen da. "10 metroko alture batetik 100 pezeta truke salto eiñ dekela? I ez aiz betie, moteil!".

Betortz, betortza. Ebakitzeko hortzen eta aurreko haginaren arteko hortza. "Betortzak ertetzen ai zaizko ta kalenturikin dabil".

Bezin. Konparatibetan, bestearen tokian. "Nik zure bezin ez nuke ingo".

Bezperak. Otoitz orduetako bat, arratsaldean esaten dena.

Bi bittea. Bi biren kontra. "Apustue bi bittea".

Bialdu. 1. Bidali. 2. Bota. "Eskolatik bialdu eiñ debe ori".

Biantxa, biantxie. Behia egiteko uzten den txahala. "Beixek ikustea jun giñenien, biantxiek kriston errena zeuken".

Biblioteca jun. Komunera kaka egitera joan. "Pixketeako badauke, biblioteca jun emen da ta".

Bideitxur, bideitxurre. Bidezidorra, lasterbidea. "Ni beti bietxurretik jute nitxiñan, Marikutzeko potzoa".

Bider. Aldiz. "Zenbat bider esan diñat?".

Biderrez. Aldiz. Ikus bider.

Bier. Bihar. "Gaur eztauket denboraik, bañe bier bertan eingoxot bueltie abixue emateko".

Biesera plantxau. Hariaren kontrako zentzuan plantxatu.

Biko. Jokuan, batez ere pilotan, bi puntu edo bi bizitza izatea. "Irabazten niju biko nao ta". (Hiruko, lauko... ere erabiltzen da).

Bildots, bildotsa. Ardi gaztea.

Billur, billurre. Beldurra. "Bakarrik gelditzeko billurre eukitzeu gauetan". (Billur eta bildur, biak erabiltzen dira).

Biotzeko, biotzekue. Infartoa. "Biotzekue eman ta bertan geldiu zan".

Birbiliñe, birbiliñe. Egurra zulatzeko baserrietan erabiltzen den eskuzko tresna txikia. Ikus daratulo.

Bire txiki, bire txikixe. Bidezidorra, lasterbidea. "Baserrire bire txikitik jute giñen". Ikus bideitxur.

Bire, birie. Bidea.

Birikixek. Gibel-erraiak. "Txakurrek oilaskun birikixek jan dittu".

Bistaraute eon. Tripa nabarmentzeko moduan hazita izan. "Bistaraute dao ondo fijatze bazea".

Bisten. 1. Ikusteko moduan. "Andik plaza osue bisten". 2. Biluzik. "Medikuna jute giñenin rebisixue eittea, arek esate ziun bisten jartzeko".

Bixen bittertin. Bitartean. "Oindik ezta etorri ta bixen bittertin gure eon eingo gea".

Bixkialdi. Erditze berean bi ume jaiotzea. "Mariandiken nerea bittertin, gure amak, bi bixkialdi izen zittun".

Bizerkentzaille, bizerkentzaille. Bizargina. "Atzo, aspaldiko partez, bizerra moztea jun nitzen Fernando bizkertzeillina".

Bizi alargun, bizi alargune. Banatua, dibortziatua.

Bizi, bizitze. Etxebizitza. "Gure baserrixe bi bizitzekue da".

Bizi, bizixe. 1. Pertsona azkarra. "Orrek tontue emateu baiñe oso bizixe da". 2. Pilota azkarra. "Koño! oixe pelota bizixe dana!". 3. Minbizia. "Aure bai zala ona, baiñe bizixek jota il zan".

Bizimoru, bizimorue. Bizimodua. "Bizimoru goorra tokau zikuk guri".

Bizittu. 1. Janaria bizitu, atondu. "Letxugie bizittuizu, biñagre pixket botata baare". 2. Piztu. "Apiretal eman da geo umie bizittu eiñ tzan".

Blaixe arrapau. Bustitzea. "Eurixe asi ta eundeko blaixe arrapau giñian".

Blastiau. 1. Jipoia eman. "Atzo gauin e sartu uan saltzan, ta blastiaute erten omen tzian". 2. Mozkorra harrapatu. "Sapaturo bezela tragoka asi ta blastiaute jun nitxiñan etxea".

Blaust! Luze erori (onomatopeia). "Platanukin irristau ta blaust! lurrera eroi uan".

Blaxe arrapau. Ikus blaixe arrapau.

Bolara, bolarie. Denboraldia. "Mallubi bolarie laste izengoa".

Boldoxor, boldoxorra. Gizajo antzekoa.

Borra, borrie. Gabia, mazoa. "Ezixe eitteko borrie ta egurre ber ditxiat".

Botaka eiñ, botakie eiñ. Oka egin. "Jatekuk etzixon onik eiñ ta botaka eintzun".

Botaka(g)ure, botaka(g)urie. Goragalea, oka sorteraztea. "Eztakit ze jan detan baiñe kriston botakaurie dauket".

Botaka, botakie. Oka. "Kalin botakie dao, justu bebarro aurrin".

Botillero, botillerue. Pilotari baten laguntzailea. "Len pelotaixe zan aure ta oiñ Titiñen botillerue da".

Braskal, braskala. Utzia, zabarra. "Aure ondo braskala zan".

Braskildute. Utzita. "Ezta bate zaitzen, era bat braskildute dao".

Bruxe. Baserritarren brusa. "Bruxe jazteko oitturie daukebe batzuk, San Andresetan".

Budiñ, budiñe. Flana. "Postreako zure gustoko budiñe eiñ det".

Buelo, buelue. 1. Pilotaren neurria. "Pelotin buelue neurri diferentekue izete zan, segun zenentzat zan". 2. Pilotaren botea. "Pelota orrek buelo ederra dauke".

Buelta. Jokoetan araua bete ez denean berriro hasi. "Buelta da, sakik etzun balixo ta".

Bueltie eman. 1. Biratu. "Urrengo kalin bueltie eman berdezu". 2. Aldatu. "Partido onek bueltie eman du bigarren zatixen".

Bulda, buldie. Bula, baimena. "Gaur etxin buldie eman dibe ertetzeko".

Burrunda, burrundaie. Burrunba. "Grupo orrek burrundaie besteik eztu atutzen".

Burruntzali, burruntzalixe. Goilare sakon eta handia, batez ere sopa, babak etb. platerera ateratzeko erabiltzen dena. "Burruntzalixekin obeto atakozu lapikokue".

Buruandi, buruandixe. Ume jaioberria. "Buruandixe enkargau omen dibe". Ikus anagorri.

Burubizkor jun. Azkar, zuzen joan. "Azidentina esan tzi-benin, burubizkor jun nitzen ospitalea".

Burutik berako, burutik berakue. Katarroa, baina musuko eta buruko karga duzunean. "Au den burutik berakue arrapau denena, eh?".

Burutsu, burutsue. Jakintsua, azkarra. "Kontuz orrekin burutsue den da".

Butroi, butroie. Sare mota bat zabaletik estura dijoena.

D

Da(r)atulo, da(r)atulue. Egurra zulatzeko baserrietan erabiltzen den eskuzko tresna handia. Ikus birbiliñ.

Danak emanda jun, ibilli. Oso azkar joan. "Or ibiltzeie kotxin danak emanda".

Danba, danbaie. Leherketa hotsa. "Zeoze pasau da beintzet, kriston danbaie aittu deu ta etxetik".

Danbateko, danbatekue. Kolpe edo leherketa hotsa. Ikus danba.

Danbatekue artu. Kolpe hartu, batez ere auto istripuetan. "Kotxin zijula kriston danbatekue artu zun Jonek lengo jaixen".

Danbatekue eman, danbatekue eman. Bihotzeko edo bestelako atakeren bat eman. "Danbatekue emanda re ardue errez erate zun arek".

Danboliñ, danboliñe. 1. Musika tresna. "Txistue ta danboliñe artute jaixetan pasakallie jotze gendun". 2. Gaztainak erretzeko tresna. "Bilduteko gastaiñek danboliñin erreta jan tzittuben".

Daneakue, daneako. 1. Denerako prest. "Jendie daneakue daukezu emen". 2. Mota guztietako. "Denda berri oxetan daneako gauzek topatzeittuzu".

Danin. Edozein lekutan, edonon. "Oiñ danin bakallaue aitzek".

Dardarizo, dardarizue. Dardara. "Edadin aurrea zijun ta geruo ta dardarizo geixo zauken".

Dardarra, dardarraie. Dardara. "Azkenaldixen bolantik kriston dardarraie dauke". Ikus dardarizo.

Deberik. Etxeko lanak. "Bierko deberik bukaute dauzket".

Debut. Bikote bat elkarrekin hasten deneko eguna. "Bi parejak debutatze omen diñabe gaur. Geurie esate bateako, Jesusen Biotzan egunin zan, zinea bixok bakarrik junber gendun, aure zan debute".

Delbrazita jun. Besotik helduta. "Kalin ola jute zin parejak, delbrazita, entraban en capilla". (Delbrazita jun eta delbraizta jun, biak erabiltzen dira).

Demonixo, demonixue. Gaiztoa, bihurria. "Ume au ze demonixo da gero!".

Demontre. Beste hitz zakarragoen ordeaz erabiltzen den interjekzioa. "Ze demontre zabilte!".

Deportibak. Kirola egiteko oinetakoak. "Deportiba berrixek estraiñatzeittut gaur".

Derrepentin. Bizkor, berehala. "Ti ta, ti ta, derrepentin eitte zittun lan danak".

Desditxe, desditxie. Kexa. "Orrek aiñe keja ta desditxe gutxirek ibillikoñabe".

Desordutan ibilli. Goizaldeko ordu txikitan ibili. "Beti desordutan ibiltzea gure au astebukaeratan".

Destantalau, destantalaue. Kankailua, baldarra, kalamastra.

Di-da. Azkar adierazteko onometopeia. "Lan danak di-da baten bukau zittun".

Dingi-danga. Azkar. Ikus di-da.

Dixku(i)ro. Dixku(i)rue. Ustekabea. "Dixkuro baten azkar aillatzema esan otseitteko".

Dixkurau. Nahastu. "Batemat dixkurau da, emen Karmenik ezta bizi ta".

Doako, doakue. Dohainik. "Eztaukezu paau berrik, doakue da ori".

Domeka, domekie. Igandea. "Datorren domekan Urrateiko eune da".

Doministiko, doministikue. 1. Usina. 2. Usinaren ondorengo erantzuna.

Domisantu, domisantue. Santuen eguna. "Domisantureko erromilleta eder bat erosiko deu".

Dontsu, dontsue. Ironi kutsuarekin pertsona bat handia dela esateko. "Farmaziko gizona bai dala gizon dontsue".

Dozenie. 1. Hamabiko multzoa. 2. Hamabi arraultza gehi bat. "Santa Klarako monjai egualdi ona eitteko dozenie emate zako". 3. Hamabi pare alpargata. "Dozenie josteatik gure dirue atetze gendun".

Dranga. Azkar, kolpetik. "Zauken dana dranga eran zun".

Drote eiñ. Arin ihes egin. "Atie jo ta drote eiñ giñian etxekuk ez arrapatzeko".

Drote! Aide! Ospa! "Drote emendik! Beti gaiztokexen!".

Drotin. Azkar. "Fuolai buruz izketan asteizenin drotin jute naiz sukaldea".

Dun-dun aundi, dun-dun aundixe. Meza kanpaia.

Dun-dun zar, dun-dun zarra. Kanpandorreko kanpaietan, hil kanpaia. "Batemat jun tzaku, dun-dun zarra ai du ta".

Dunbel, dunbela. Bonboa. "Urte askun jo zun arek dunbela Axkoittiko bandan".

Dunbeljole, dunbeljolie. Bonboa jotzen duena.

Duro ziller, duro zillerra. Zilarrezko bost pezetako txanpona. "Hau poza kalin duro zillerra topau ezkeo".

E



E(g)oki, e(g)okixe. Pertsona batengatik jatorra edo aproposa dela adierazteko. "Aure egokixe da umikin lanin ibiltzeko". Ikus eroki.

Eatxi. Lurrera bota. "Emantzixon zartaiekin jota lelungun eatxi zun".

Ebaiketa. Jostunen gremioan mozketak esateko.

Eguerri egun, eguerri egune. Eguberri eguna. "Eguerri egunin famili osue biltze gea baserrixen".

Eguzki printze, eguzki printzik. Eguzki izpiak. "Goiz in lexotik euzki printzik sartze zin ta esnau eiñ nitzen".

Eiñ. 1. Egin. "Matematikako lanak eiñ ditteu". 2. Landu. "Masie eindekun ogixe eingo deu". 3. Izan. "Ori aman partetik nere lengusue eittea". 4. -koa izan. "Marixan nungue eittea?". 5. Hizkuntza bat hitz egin. "Euskeraz eitte al du orrek?"

Ekarriko? Erregeen kabalgatan umeez ohitukatu ohi duten galdera. "Gure Anak ixte estarrixe laa zun atzo ekarriko einetz".

Ekin. 1. Jardun. "Nei erraz ekitteit". 2. Hasi. "Ekin azkar lanail".

Ekumil, ekumille. Ukabila. "Lurrea eroitte ekumille dana urraute ekarri zun".

Elastiko, elastikue. Kamiseta. "Gaur gauin elastiko berriekin ertengot".

Elder, elderra. Listua, lerdea. "Aotik elderra zula aillau zan antxintxikalaixe meta".

- Elkor, elkorra.** Gogorra, zurruna. "Biundu ezineko aragixe, elkorra da".
- Elur, elurre.** 1. Elurra. 2. Telebistan, irudien ordeztarriak zuriak agertzen direnean.
- Eman.** 1. Eman. "Emaizu karamelue". 2. Errenditu. "Emate al dek?". 3. Eraman. "I lasai, nik emango aut Donostire".
- Emanber.** Badirudi. "Emanber azpeittarra aizela, lerdo aurpei orrekin".
- Emaneziñ, emaneziñe.** Jasan ezin. "Onbeste jende batea emaneziñe eitte zat".
- Emaneziñeko, emaneziñekue.** Emanezinezkoa, bekaiztia. "Egunero lanin ikustie emaneziñekue den neretzat".
- Emataille, emataille.** Emateko joera duena. "Leno xurre uan baiño urtikin ematille xamar zabillek".
- Eme, emie.** 1. Arra ez dena. "Gure lelengo txakurre emie uan". 2. Neska itxura duen mutila. "I aiz emie!".
- Emen.** 1. Hemen. Ikus amen. 2. Omen. "Azken biarren geldiu emen tzien atzoko saixun".
- Emendau.** Itzali. "Argixe emendau, badie orduk ta!".
- Enge, engie.** Ezinikusia, nazka. "Tipo orrek kriston engie emate zik".
- Enpaza.** Adiskidetzea. "Ibilli zitxiaben kontu ta komerixek, baiñe azkenin, enpaza allau uan".
- Enpazin geldiu.** Kontu bat bukatutzat ematen denean. "Eman nizekon eman berrekuk ta enpazin geldiu giñen".
- Enpaztu.** Zorrak ordaindu. "Martxoko soldatikin danakin enpaztu nauk".

- Enpleaute eon.** 1. Lanpostua izan. "Urte erdixe eiñ diat lanik be, baiño oiñ enpleaute natxiok". 2. Karta jokuan, hauek ondo kolokatuta izan. "Laiste bukauko den jokue, karta danak enpleatue zauzkenat ta".
- Ensaladie arreglau.** Atondu. "Jun ensaladie arreglatzen, laste apalduko deu ta".
- Entrama, entramie.** Jateko edo edateko erraztasuna. "Orrek zaukeik entramie moteill!".
- Enttonau, enttonaue.** Dotorea. "Aure gizon enttonaue izen tzan beti".
- Entzun.** Entzun, baina meza bakarrik. Gainontzean, aittu hitza erabiltzen da. "Ordubateko mezie entzun ta Alamedanea jute gaittun pintxue jatea".
- Epel, epela.** 1. Ez hotz ez bero dagoena. "Naixo det kapesnie epela artzie". 2. Bestekiko harremanetan beti ondo gelditzea nahi duena. "Beti danan atzetik, epela dek ba!".
- Epelkei, epelkeixe.** Beste pertsona batekin edo batzuekin ondo gelditzeko norbaitek dioenari esaten zaio. "Oiñ e epelkeixe bota du orrek!".
- Epeltzio.** Izaera epeleko pertsona. "Hauxe epeltzio!".
- Erabat.** 1. Guztiz. "Oiñdik ez ta ba erabat sendau ta makalik dabil". 2. Asko, ia denak. "Ikaslik erabat konforme zauden".
- Erantzi.** Biluztu. "Medikunin biluzik jarri. Biluzik? A bai, erantzi eo gorrik jarri".
- Erdaldun, erdaldune.** Euskaraz ez dakiena. "Zumarrakuk etortze zienin fuolea, axek erdaldunek, pa, erdalduneko o enteitzea, kanpotarrak beintzet".

Erdel, erdela. Lerdea. "Erdela daixola dabil jolasin". Ikus elder.

Erdokie. Likido batek utzitako arrasto zikina. "Komuneko zulo ortan bai daola erdokie!".

Erixo, erixue. Larritasuna, estuasuna. "Gauin ames txar batekin kriston erixue pasau det".

Erlakristen, erlakristena. Pikorta. "Baserrixen, sagar arbola artin gabiltzela jolasin, Mari Karmeni eltxo batek eldu ta geo, kriston erlakristena erten zixon".

Erliar, erliarra. Erlabioa. "Leixue itxi, bestela erliarra sartukoa ta".

Ermie. 1. Zalea. "Azkar jaten ermie da". 2. Zerbait usu gertatzen zaiona. "Kotxin artu dik ederra, beti izen dek ermie ortan".

Ernemuiñ, ernemuiñe. Patatari ateratzen zaion kimu sorta. "Patata zorrun ernemuiñe besteik ezta ikusten".

Eroki, erokixe. "Beti izen da gure neskie itz erokixe". Ikus egoki.

Erra. Errada, suila.

Erralde, erraldie. Pisuzko neurri bat, 5 kilogramo. "Idixe bizik, 920 kg eman omen zittu, ta 517 kanalien, alajaine 103 erralda kanalien". Ikus errolda.

Erramo, erramue. Ereinotza. "Aste santu aurretik, erramu eune ospatze deu".

Erraulki, erraulkixe. Errada, suila. "Garai batin emakumik erraulkixe emate zebeñ buru gaiñin". Ikus erra.

Errebero, erreberue. Tititik zuzenean hartutako esnea.

Errebuelta, errebueltie. Bihurgunea. "Errebuelta ortan makiña bat gazte il da".

Errefortzaketan. Abarketa josterakoan erabiltzen den terminoa. "Amak bittarte ortan errefortzaketan einber izete zun".

Errekaue eiñ. 1. Enkargua egin. 2. Norbaiti eskontzeko eskatu. "Enterau al tzeate Pedrok Anei errekaue eiñ dixola?".

Errekistau. Arakatu. "Erropa danak errekistau dizkot ta diruik eztauke".

Errelojo, errelojue. Ordularia. "Errelojue uretan sartute izarrau nian".

Errematau, erremataue. Oso osoa. "Mozkor erremataue zan".

Erremota. Ziba, txermen formako egurrezko jostailua. "Txikitten beti erremotakin ibiltze giñen jolasin, danok batea botatze gendun ta beti batek irabazte zun".

Errendiu. 1. Lasaitu. "Notizixe aittu ta gero noizko errendiu!". 2. Kontrolatu. "Ume au ezin errenditute ibiltze naun".

Errenta, errentie. Alokairua. "Etzakiñat errentie paatzeko aillauko al tzakun".

Errepe, errepie. Errapea. "Bei orrek badik zeoze errapin".

Erreprentzixue eiñ. Errieta egin.

Erresto, errestue. Pilotan, sakeari erantzuna. "Erresto eleantie eiñ dik Atanok".

Erretailie eiñ. Ilea orraztu. "Komunea nitxin erretailie eittea".

Erretatu makiñe, erretatu makiñie. Argazki kamara. "Erretatu makiñie galdu nun oporretan".

Erretatu, erretatue. Argazkia. "Apaiko eunin ekarrikoittut oporretako erretatuk".

Erretaturekue. Fotogenikoa. "Neska eder aure bai zala erretaturekue".

Erreten, erretena. 1. Espaloi ondoko ubidetxea. "Txapaka ibiltze giñenin, neri seittun eroitze ziten erretenea". 2. Ipurdiko erretena. "Ipurdiko erretena re izerdittute zaukeat".

Erretiro, erretirue. 1. Jubilazioa. "Pakok erretirue lengo urtin artu zun" 2. Etxeratzea. "Atzo kriston erretiro txarra eiñ gendun". 3. Menopausia. "Mareukin zabillen erretirue dala ta eztala".

Erretoi, erretoie. Parroki edo elizaren ardura duen apaiza. "Erretoie etorri zan etxea amama ill aurretik".

Erretolika, erretoliekie. Jarduna. "Etxea berandu aillatzeatik kriston erretoliekie bota ziben".

Erril, errila. Txanpon bat, 25 zentimokoa. "Ori ikusteko ez nian errealik paauko".

Errilbiko, errilbilkue. 50 zentimoko txanpona. "Errilbiko batekin zenbat gauze eroste giñuzen!".

Errobera. Gorpila. "Errobera bat ustu ziten".

Erroidue. Gaixotasun bat, mamitisa.

Errolda, erroldie. Bost kilogramo. "40 erroldako txala saldu diau atzo bertan". Ikus erralde.

Erromako zubi, erromako zubixe. Ostadarra. "Eurixe, euzkixe, erromako zubixe".

Erromilleta, erromilletie. Lore sorta. "Gure etxeko mutilek larrosa erromilletie erregalau zixon bere andregaixei".

Erten, ertena. 1. Atera. 2. Irtenunea. 3. Bere onean ez dagoen pertsona.

Ertera munek. Lerdokeriak. "Auek dittut ertera munek botatzen ai geanak ointxe".

Ertera, erte(e)rie. Ateraldia. "Ze ertera dittuk oxek?".

Esaga, esagie. Gurdiari, gainean jartzen zaion egurra belarra lotzeko.

Eskau. 1. Eskatu. "Astero amamai pagie eskatzexo". 2. Askatu. "Lokarrixek eskaute dauzken".

Eskilburu, eskilburue. Eskileretako laugunea. "Luze jardun gendun izketan eskilburun topau giñenin".

Esku zapatille, esku zapatillie. Abarketak egiteko, titera antzeko bat.

Eskual Erri, Eskual Errixe. Euskal Herria. "Eskual Erriko jende asko jun tzan kanpoa lanea garai artan". (Eskual Erri eta Euskal Erri biak erabiltzen dira).

Eskualdun, euskaldune. Euskal Herrikoa, euskalduna. "Burugorra aiz i, eskualdun onak bezela". (Eskualdun eta euskaldun biak erabiltzen dira).

Esne-bezero, esne-bezerue. Esne saltzailea. "Artu marmittie! Esne-bezerue dator da!".

Esnegaiñ, esnegaiñe. Esnearen gainean eratzen den geruza koipetsua. "Kafesnie esnegaiñekin ezin det eran".

Esetela, esnetelie. Ikus esnegaiñ.

Esnezale, esnezalie. Esne saltzailea. Ikus esne-bezero.

Esola, esolie. Lur eremu bat ixteko erabiltzen den egurra. "Beixek larrien ipintzeko, esolakin itxi deu solue".

Espabilada, espabiladie. Bizia.

Espabilau, espabilaue. Bizia. "Beti izen da neska espabiladie". Ikus espabilada.

Espar belar, espar belarra. Arrantzurako sare handia, ibaietarako erabiltzen zena.

Espartzo, espartzue. Ipitxa, mostratxa, estropajoa.

Espazioxoz. Presarik gabe. "Inportantik dizen gauzek espazioxoz eiñ ber die ta ez presikin".

Espiker, espikerra. Irrati edo telebistako aurkezlea.

Esplikante, esplikantie. Hizlaria. "Lengo kontukin dana akordatze zan, ta gaiñea esplikante earra zan".

Esportak. Galtzerdi luzeak. "Esportak goraiño ixota jokatze zun beti".

Estalki, estalkixe. Manta. "Otzik ez pasatzeko estalkixe gaiñetik bota dixot".

Este-sobra, este-sobrie. Apendizea. "Este-sobrie kentzea eman omen debe Zumarra".

Estomau zulo, estomau zulue. Urdaileko ahoa. "Estomau zuloko miñez nao nerbixukin".

Estrata, estratie. Bi lekuren artean egoten den pasabide estua. "Gure etxin ta txabolin arteko estratan topau nun txakurre akaute".

Etenda eon. Banatuta. "Asarrau eiñ ginen, ta oiñ etenda gaude".

Etiketa, etiketie. Milikeria, maila. "Ortan etiketa aundixe zauken".

Etorrixo. Datorrenaldia, etorkizuna. "Etorrixek esangou nun bukauko deun".

Etsai, etsaixe. Deabrua. "Etsaixe jendiek normalien bi adarrekin ta sarda batekin deskribitzeu".

Etsipena eman. Gaixo bati gaixotasun batetik aterako ez dela esateko. "Etsipena eman dixobe ta eztakiu zemat iraungoun".

Etxafuru, etxafurue. Suziria. "Etxafurun zaratikin bildurtu eitte zan".

Etxepe, etxepie. Etxepean ,teilapean. "Gure etxepin zar gutxi bizi gaittun".

Etxepeko, etxepekue. Auzotarra, etxe berean bizi bada. "Eunero etxepeko Joxekin ixotze naiz eguerditten".

Etxeso, etxesue. Itsasoa. "Laiñoik eztaonin etxesuere errez ikustea emendik". (Itxaso ere erabiltzen da).

Etxezulo, etxezulue. Etxetik ateratzea asko kostatzen zaiona. "Ori len etxezulue ziero, ta oiñ ezin sartu".

Euli mando, euli mandue. 1. Mandeulia. "Ikullun euli manduk besteik eztabiltze". 2. Pertsona astuna. "Euli mandue ematek, moteill! Eun osun gañin!".

Eundoko. Asko, handia. "Eundoko poza artuko nuke loterixe tokau ezkeo".

Euskal prantses, euskal prantsesa. Iparraldeko biztanlea. "Itzeitteko eratik euskal prantsesak zila esango nike".

Eutera, euterie. Eguzkiak betean jotzen duen lekua, toki eguzkitsua. "Atten baserrixo eutera earrin eotea beti".

Euzki-galda, euzki-galdie. Eguzki beroa. "Kaleko langillik negun otzetan ta udean euzki-galdatan jardutebe lanin".

Exkurrume, exkurrumie. Seme edo alaba gaztea, benjamin. "Gure exkurrumie kanpun dao estudixuk eitten".

Ezaun izen. Jakinekoa izan. " Ezaun diñau zeñ dabillen berandu".

Ezker zier, ezker zierra. Pilotan ezkerarekin zabalera bota. "Ezker zierrakin tanto asko eitteittu gazte onek".

Ezpara, ezparie. Fraideulia, ezpara. "Ezparik eldute laa zin koskorra etzat ondik bajatzen".

Ezpata, ezpatie. 1. Gurdian, esaga lotzeko tokia. Ikus esaga. 2. Ezpara. Ikus ezpara.

F

Falta. 1. Falta, eskas. "Sake ortan neretzako falta eñ dula!". 2. Gabezia. "Orrek sekule ez tin izen diru faltaik".

Famau, famaue. Goraipatua. "Jende danak asko famau du taberna ortako janaixe".

Famili esperun eon. Umea edukitzeko eon. "Ailleau diube famili esperun daudela".

Famili, familixe. 1. Familia. "Famlixen senide asko gattun". 2. Umea. "Familik ba al dauken?".

Filomena. Kandela bildua.

Fuel(eko) kanpue. Futbol zelaia. "Azkoittixen belar artifizialeko fuel kanpue einber omen debe".

Fuel, fuela. Futbola. "Jaixen fuel partidue ikustea jun giñen".



G

G(e)ure akuerdun. Beti bezala, esan bezala. "Bostetan juntau giñen kafie artzeko, gure akuerdun". Ikus gure ttantun.

Gaban, gabana. Jaka mardul, luzea "Aittitte zana, beti bere gabana jantzitte jutezan eleante askoik".

Gaille(g)jo aize, gaille(g)jo aizie. Mendebaldeko haizea. "Gaur galleo aizie zabillek eun osun".

Gailleo! Erronka egiteko erabiltzen den hitza. "Ezetz amar aldiz jaso arrixte, gailleo!".

Gaiñeako. Plater baten ostean datorrena, bigarren plate-
ra. "Gaiñeako xerra bana patatakin jangouzte".

Gaiñetik. Ikus gaiñeako.

Gaiñin. Ikus gaiñeako.

Gaitzizen, gaitzizena. Goitzen. "Emen geixenak daukeu gaitzizena".

Gaixo, gaixue. 1. Gaixo. "Neska ori gaixo dao". 2. Gaixotasuna, gaitza. "Orrek gaixue dauke jaxo zane-
tik". 3. Gizajoa edo gajoa. "Ai! Mutil gaixue! Beti dana beai pasatze zako".

Gajo, gajue. Gizarajoa (emakumezkoekin erabiltzen da). "Inok eztaki gure ama gajuk bizitze ontan zenbat lan eñ dun etxeko danok aurrea etatzeko". Ikus gizajo.

Gajomarta. Zontzona, zanpana (bakarrik emakumez-
koekin erabiltzen da). "I aiz gajomarta! Sekule ez aiz espa-
bilauko!".

- Galani, galanixe.** 1. Handikia. "Orrek ibeltzeu galanixe... beti puztu-puztu einde". 2. Jateko afana, gula. "Ori ezta gosie, ori galanixe da!".
- Galanki.** Asko, ugari. "Galanki aziko aiz ainbeste esne edaten".
- Galanta.** 1. Handia. "Neska galanta aiz ba anderakin jolas-teko". 2. Harritzekoa. "Galanta den ba, ik ez jakittie ze ordutan geldiu gean".
- Galazi.** Galerazi. "Medikuk jinasixe eittie galazi dit".
- Galazo.** Galerazi. Ikus galazi.
- Galbana, galbanie.** Alpergura. "Bazkaldu ta gero kriston galbanie sartze zat".
- Galdu.** 1. Zerbait edo norbait gabe gelditu. "Txamarra berrixe erosi orduko galdu zun". 2. Hondatu. "Fruta ori ez bazu jaten galdu ingoa".
- Galerain.** Galerazi. Ikus galazi.
- Galipot, galipota.** Asfaltoa. "Ezin da gure etxe paretik pasau galipota oiñtze bota debe ta".
- Galtzairu, galtzairue.** Altzairua.
- Ganaana.** Ganaduaren jatekoa. "Lanak bukatzeko ganaana partitzie bakarrik falta zat".
- Ganaateko, ganaatekue.** Ganaduaren jatekoa. Ikus ganaana.
- Ganau, ganaue.** 1. Etxeko animalia. "Ganaue gobernau-tekun lagundukoiztet". 2. Badaezpadakoa, trastoa. "Ik beti eurikin ertetzek, i aiz ganaue!". 3. Neskak eta muti-lak alkarri, ederrak direla adierazteko. "Ori ganaue daona Zarautz alde ortan".
- Ganbara, ganbarie.** 1. Ganbara. "Ganbaran baba mordue dao zuritzeko". 2. Burua. "I ganbaratik ondo al ao?".

- Ganbela, ganbelie.** Burua. "Ori ez dabil ganbelatik ondo". Ikus ganbara 2.
- Ganbelako, ganbelakue.** Buruan hartutako kolpea. "Eskolako postikin ganbelakue artu det". Ikus kosko-rrerako 1.
- Gandure, gandurie.** Aire kargatua. "Gaur goizin goizetik gandurie daukeu".
- Garbiu.** Hil. "Kotxeko azidentin garbiu zan oiñ dala bi urte". Ikus il.
- Garitxo, garitxue.** Azalean ateratzen den pikorta modu-koa. "Eskuk garitxoz beteta zauzken, ermitara jun giñen dirue botatzea ta andik urtebetea etzauken garitxoik".
- Garlope, garlopie.** Antigualeko zepillo handia. "Mandixun attittek ibiltze zittun garlopie ta beste traste batzuk dauzket gordeta".
- Garrote, garrotie.** 1. Fundamentua. "Etzauken beintzet lanak eitteko garrote aundik!". 2. Abiadura. "Etxe aurretik motor danak kriston garrotin pasatzeie".
- Gatza(g)i, gatzagixue.** Esnea gatzatzeko erabiltzen dena. "Mamixe eitteko gatzagixue erosi drogerixen".
- Gauzek.** 1. Gauzak. "Oindik etxeko gauzek dauzket eitteko". Zenbait kontestutan hilerokoaz esaten da. "Neure gauzeekin natxion da ez naun jungo piztina".
- Gazeta, gazetie.** Egunkaria. "Goizero irten aurretik gazetie letzie gustatze zat".
- Gazura, gazurie.** Gaztaren ura.
- Geizkitxo.** Justu gaizki esanahiaren kontrako zentzua har-tzen du -txo atzizki txikigilea izenondoari gehitzen zaio-nean. "Kejau eingo aiz gaiñea, geizkitxo bizi aiz ba!"

Gezurretero, gezurreterue. Gezurrak esaten dituenak. "Orri ez sinistu ezerrez, gezurretero utse da ta!".

Gezurtero, gezurterue. Gezurrak esaten dituenak. "Gezurtero zikiñe!". Ikus gezurretero.

Gibel-arraixek. Gibel-erraiak. Ikus biriki.

Gibelaundi, gibelaundixe. Patxadatsua. "I ez larrittu, gibelaundi ori!".

Gibeleko, gibelekue. Gaixotasun bat, hepatitis. "Gibelekue dala ta eztala artzeittu indiixuk".

Giltze, giltzie. 1. Giltza. "Etxeko giltzie ez tet topatzen". 2. Iltzea. "Egur ori pare bat giltzekin josiko deu".

Gitxi. Gutxirekin batera, biak entzuten dira. "Jende gitxi zabillen gaur azokan".

Gixon, gixona. Erdi gizona dela adierazteko, zentzu peioratiboan. "Emen gure gixona, kajakin eziñin".

Gizajo, gizajue. Gizarajoa (gizonezkoekin erabiltzen da). "Eon ai ixilik, gizajo ostia ori!". Ikus gajo.

Gizaldi, gizaldixe. 1. Gizaldia. 2. Mendea.

Goiko, goikue. Jainkoa. "An izengo gea goikuek ala nai bau".

Golau, golaue. Paperaz edo boziaz gaixorik den ardia.

Goma natural, goma naturala. Pelotak egiteko goma birjina.

Gona andixek. Ikus beltzak. "Gona andixek amarna punto balixo debe bakoitzek".

Goor, goorra. Gogorra. "Ogi au atzokue izengoa, ziero goorra dao ta".

Gor aize, go(o)r aizie. Gogorreria. "Oñe builleka, goor aizie al dauken o ze?".

Gor, gorra. Entzuten ez duena. "Gure aitte azkenengo urtetan goortu eñ zan".

Gora beera, gora beerie. Ezberdintasuna. "Or eongoa gora beerie".

Gordiñ, gordiñe. Egosi edo erre ez den janaria. "Ba omen daude batzuk arraixe gordiñik jatebenak".

Gorni, gornixe. Elgorria. "Txiki txikitan pasau zun gure Andonik gornixe".

Gorri ots, gorri otsa. Maldizioka. "Axek ibilli zebeñ gorri otsa errealak galdu zunin".

Gorrik. Gorrik. Biluzik. "Plai artan gorrik bañatze zinake ikusi giñuzen".

Gozau. 1. Azukrea bota. "Ondo gozau al dezu kafie?" 2. Pilotari gustora eman. "Oingo ontan Errastik gozau du ba pelotie". 3. Disfrutatu. "Gozau niñan ba partidu ori ikusten".

Granbill, granbille. Erregela moduko tresna, baserrietan erabiltzen dena.

Graziosa. Gaseosa, mende hasieran. "Gure birraittonak graziosa erate zun ta ez gaseosa".

Guardau, guardaue. Errefortzatua.

Guata, guatie. Kotoia. "Oxigenada bota ta guatie pasaukoizut irikixen". Ikus algadoi.



Ibilli. 1. **Ibili.** "Zure bille ibilli naiz goiz osun". 2. Erabili. "Enkargutako ibilli det poltsa ori".

Ier, ierra. 1. Landare mota bat. "Gure amak gixaei beti botatzeizko ierrak". 2. Argala. "Mutil luzie ta ierra da Jon".

Iertu. 1. Landarea galdu. "Egualdi auek izen dila ta baba danak iertu zaizku". 2. Argaldu. "Ene Maria! aspaldixen dana iertu zea".

Igel. Behorra ar eske dagoenean.

Igualeko, igualekotxe. Konparaketetan, egoera hobeagoa azaltzeko erabiltzen den terminoa. Ikus aldekotxe. "Igualekotxe gaude amen".

Ii, iixe. Senda belar mota bat. "Iixe jasotzea irtetze gendun sarri sarri".

Ikezt(i), ikezt(i)xe. Ikaztobia. Etxeetan lehen egon ohi zen gela edo kajoia.

Ikixi. Ikasi. "Gai danak ikixi ber diz esamiñeako".

Ikusi! Erakutsi. "Ikusi! Jertse berrixe nolakue dan".

Ikuske, ikuskie. Ikuska, bekaiztia. "Ikuskie aiz ba! Beti marmarrin".

Ikusmiren eon. Toki jakin bati begiratu gabe egon. "Emen natxiok ikusmiren, denborapasa".

Ikusmiren, ikusmirie. Ikuspegia. "Ikusmire earra dao emendik".

Il. 1. Hil, pertsonei buruz ari garenean. "102 urteko andra bat il omen da". 2. Hil, etxeabereak guk hiltzen ditugunean. "San Isidrotan jateko arkumie il deu".

Illetargi, illetargixe. Ilargia. "Gau giro dao, illetargixe bete betie dao".

Illuniztentzi, illuniztentzixe. Gaua edo ilunduta dagoela esateko erabiltzen dugu. "Illuniztentzixen pasira jutie mundiala da".

Illuntze, illuntzie. Ilunabarra. "Illuntzin erten ber al den kafe bat hartzea?".

Imillaune. Imilauna, erreal baten laurdena.

Imille, imillie. Imina, 12 kg.

Imutu, imutue. Inbutua. "Ekarrizu imutue, ardue botella pasatzeko!".

Inder, inderra. 1. Indarra. 2. Elektrizitatea. "Argiinderra ber dezu motor ori muitzeko".

Inderretxe, inderretxie. Zentral elektrikoa, batez ere ibaihoa.

Indiixo, indiixue. Injekzioa. "Indiixue jarri ber dixobela ta nearrez dao".

Ingurau. Eskuratu. "Ber giñozen firma danak ingurau dittou".

Inpernuko txikito. Deabrua. Ikus etsai. "Inpernuko txikito baño geiztuo aiz".

Inuxente, inuxentie. Tentela. "I aizekan inuxentikin ente-raure ez aiz eitten!".

Iñon, iñona. Besteena, inorena. "Zeurie baño obio izetea beti iñona".

Ipurdiko katarro, ipurdiko katarrue. Toki hotzean egonez gero harrapatzen den katarroa. "Ipurdiko katarrue arrapakouzte or jarritte eon ezkeo".

Irakazki, irakazkixe. Iragaztontzia. "Irakazkixe ber det esnie pasatzeko".

Irausi. Txerria ar eske dagoenean.

Iriki, irikixe. 1. Irekia. "Maialen pertsona irikixe da, danai kaso eittexo". 2. Pentsamoldez jarrera itxia ez duena. "Dauken adiñeako naiko irikixe da". 3. Zauria. "Aitzen kontra jota irekixe eñ du".

Irisa(g)ar, irisa(g)arra. Irasagarrondo. "Irisaarra gaztaiekin, bai ona!".

Iritzire. Gaztelerazko "al tun tun". "Eztakit seguru, iritzire ai naiz".

Irixena jo. Masturbatu, kanpaiak jo.

Irtenin-irten. Behin atera eta etxeratu ezin. "Ointxe bai irtenin irten".

Iru kuartoko, iru kuartokue. Txanpon bat.

Iru laurden. Azkoitian adin bateko jendearentzat 375 gr-ko pisu neurria. Gaur egun 750gr-rako ere entzun ohi da.

Isokarro, isokarrue. Partiketarako erabiltzen zen motorrak, atzean zeraman gurdi modukoa. "Oxen attitte isokarrukin ibiltze zan partiketan".

Itato. Hikako hizkera, hitanoa. "Zarrakine itato eitteik orrek".

Itto, ittue. 1. Toki itxia. "Leko ori oso ittue dek, lexoike etzaukeik". 2. Ito, irato. "Igeritten etzakin ta etsesoa eroi ta ittota il tzan".

Ittukiñ, ittukiñe. 1. Teilatu edo sabaian ur jariora dagoenean. "Ittukiñen azpizen barreño bat jarri nun". 2. Hitz jario etengabea duen pertsonari buruz esaten da. "Orrek bai ittukiñe, ez ten ixildure eitten".

Ittul, ittule. 1. Idiaren aurretik joaten den pertsona. Itzaina. 2. Gidari turistikoa. "Biaje osun neska batek laundu ziun, gure ittule zan aure".

Itxi, itxixe. 1. Itxia. 2. Harremanak izateko zailtasunak izan ohi dituen pertsona. "Alaitzi bestikin relazionatzie pillue kostatzen zako, oso pertsona itxixe da ta".

Itxiture, itxiturie. Hesia. "Itxiturie daukebe beixek anka ez eitteko".

Itxu, itxue. 1. Ikusten ez duena. "Azidente baten ondoren geldiu zan itxu". 2. Jolas batean gainontzekoak harrapatu edo bilatu behar dituen. "Azkena aillau zealako zu zea itxu". 3. Amorratua, zalea. "Karakolakin itxue da ori". 4. Laiño itxua. "Mendixen itxue sartute dao". 5. Onceko kupoia. "Itxuk saltzeittunan bille nabil". 6. Kanutoa erre ondorengo sentsazioa. "Txiki bat erre ta itxu galanta arrapau det".

Itxuli. Buelta eman. "Lau launen artin gurdixe itxuli zeben".

Itxurebe, itxurebeie. Itxura gabea. "Atzoko partidue itxurebeie izentzan".

Itz-eroki, itz-erokixe. Ondo hitz egiten duela adierazteko. "Eskola aundik eztauke, baiño itz-erokixe da beaure".

Ixe. Ia. "Ixe eskaileratan bera eroi zan".

Ixiki. Eseki. "Erropie euzkitten ixiki nun".



Ixipo, ixipue. Pintzela. "Artu pintturek eta ixipue lanin asteko".

Ixiri. Eseki. "Erropak ixiri, plantxie eñ, lurre garbiu..." Ikus ixiki.

Ixixe. Ia-la. "Ixixe bertan ziplo geldiu zikun, Pello".

Ixko, ixkue. Idisko. "Izkue ekarri deu baserrire, beixei azixe jartzeko".

Ixo 1.1. Igo. "Azkar ixo zan etxea". 1.2. Gaztelerazko "tirarse a alguien". "Ixoko nixoke ba orri gustoa!".

Ixo 2. Eho. "Kafie ixotzeko zai eongo gea".

Ixo! 3. Isildu. "Bueno, danok ixo!".

Ixurtu. Ixuri. "Atzo tiai baldie ixurtu zikon".

Izakera, izakerie. Izateko era. "Guapue da, baiño bere izakerie etzat bate gustatzen".

Izeko. Izeba. "Izeko Pilarren etxin eon naiz".

Izen 1. Izan. "Etxin izen al aiz?". 2. Izena. "Ze izen daukezu?".

Izerdi larri, izerdi larrixe. Sukarrak edo eraginda, izerditan blai. "Kriston izerdi larrixe dauket, eztakitt kalenturie ez ote dauketan".

Izerdi patsetan. Izerditan blai. "Izerdi patsetan aillau giñen mendi puntea".

Iziko. Izeba. "Izikok esan dit bier beaxenea juteko bazkaltea". Ikus izeko.

Iztintza. Ilunduta dagoela esateko. "Ertetze gendueneako ixie iztintza, segun ze garai dan, udean ez, baina bestela iztintza". Ikus illuniztentzi.

Jabonzillo, jabonzillue. Tela markatzeko margo modukoa. Ikus markari.

Jai eon. Alferrik izan. "Irekin jai zeok emen!".

Jai euki. Alperrik izan. "Diru geixo nai izen ezkeo beintzet, orrekin jai daukebe".

Jaixe. Asteko egun bat, igandea. "Jaixetan amabixetako mezeta jute gea". Ikus domeka.

Jaixo, jaixue. Itxurako. "Jaixue etorri aiz gaur".

Jaixo. Illargia ilberri aurretik dagoen egoera adierazten du.

Jakin ber, jakin berra. Jakingura. "Ik dauken jakin berra bestiei buruz".

Jakin-jakiñeko, jakin-jakiñekue. Jakina. "Jakin-jakiñekue zan etzala gaur etorriko".

Jan. 1. Janaria hartu. 2. Hondatu, xahutu. "Zauzken zorra-kin etxie jan tzian orrek!".

Jantxakur, jantxakurre. Inoren lepotik dabilenari esaten zaio. "Politiko jende ori dana jantxakurrek dittuk".

Jardune. 1. Hizketan isildu ere egin gabe jarduteari esaten zaio. "!!, ori jardune daukebena oxek!". 2. Norbaitengatik gaizkiesaka aritzea. "!! Oi jardune Patxi dala ta!".

Jardutaille, jardutaille. Besteei buruz asko jarduten duena.

Jarri. Eseri. "Alako baten jarriko aiz!".

Jarritte. Eserita. "Jarritte, exeritte ez. Exeri ai ez, jarri ai".

Je! Ene! "Gaurre berandu? Je! Galanta den!".

Jeitxi. Abere eme batzuei esnea errapatetik atera. "Beixek jeitxitakun lan danak bukatzeittut".

Jel, jela. Izotza. "Ekarri zan gasolineratik jel poltsa bat".

Jende, jendie. 1. Jendea, pertsona multzoa. "Jende asko zauen plaza berduran". 2. Multzoa edo taldea, pertsona, animalia, nahiz gauzeekin. "Txiki jendikin ez nauk bate ondo ematen".

Jentejera, jentejerie. Itxura txarreko jendea. "A ze jentejera ibiltzean sapatu batzutan eskin".

Jirau, jiraue. Mozkorra. "Azkenin tonto plantan kriston jiraue eman gendun etxea".

Jirau. 1. Bira eman. "Bolantie geixo jirau ber da". 2. Bete, pasa. "Orrek larogei urte jiraute bazauzkeik". 3. Bukatu. "Ardo botellie errez jiratzeu orrek".

Jire, jirie. 1. Eginbeharrak. "Etxeko jirie eindekun erten gendun". 2. Komeria. "Au den jirie!".

Jitte, jittie. 1. Itxura. "Langille jittie dauke neska orrek". 2. Estilo. "Berezko jittie dauke orrek".

Jo. 1. Jo. "Makilkaie jo dixo txakurrei". 2. Bi gauza ezberdin berdintzat hartu. "Batzuk, bixek bat jotzeittube pasmue ta tetanue, baiño bi die". 3. Balio, prezioekin. "Zenbat jotzeu orrek?". 4. Garestia. "Asko jotzeu".

Jornabelar, jornabelarra. Gurdika bat belar. "Gaurkoz jorjabelarrakin naikue deu".

Jornada, jornadie. Gurdika bat belar. Ikus jornabelar.

Jornal, jornala. Soldata. "Asteko jornala ardotan gastatze zun".

Jorran eñ. Belarra hondotik moztu.

June. Umea galtzen hasi odol jarioaren ondorioz.

Juntau. 1. Elkartu. "Ezkontzeke juntaute bizi die oxek". 2. Atea bildu, zeharo itxi gabe. "Atie juntaute laa, zure aitte ontxe dator ta".

Jutaille, jutaille. Leku batera asko joaten dena. "Plaire jutaille da ori".

K

Kaballo, kaballue. Zaldi dotorea, baserrietakoa ez dena. "Kaballue ondo zaitzezun arek".

Kabezulo, kabezulue. Buruhandia. "Txikittetik bildurre emateibe kabezuluk".

Kabiu eziñe. 1. Ansietatea. "Ik dauken kabiu eziñe, ze pasatze zan gaur?" 2. Harrokeria. "Orrek dauke kabiu eziñe, taberna beti zabal-zabal einde sartzea".

Kabiu. 1. Sartu. "Ezin kabiute dabil pozan pozakin". 2. Lagun onak, influentziak dituela alegia. "Arek asko kabitzeu".

Kafe-errotta, kafe-errotie. Kafe aleak ehotzeko erabiltzen den tresna. "Katzu kafe-errotie, kafie preparaukoxobet gazte auei ta".

Kakaume, kakaumie. Haur txikia. "Gaur egun eozeiñ kakaumek zaukeik ordenadorie etxin".

Kako, kakue. 1. Mutur baten okertzen den egur edo burnia. 2. Tiragomak egiteko egurra. "Kako ederra topau det tiragomie eitteko". 3. Sudurra. "Orrek zaukeik kakue!".

Kalartzo, kalartzue. Hari lodia, listaria baino lodiagoa.

Kaleaka ibilli. Zenbait jolasetan huts egin ahala kanporatzen dena. "Kaleaka ibiltzen giñen Kontsejupin".

Kalentura, kalenturie. Sukarra. "Umiei atzo txertue eman tzixoben ta gaur kalenturikin dao".

Kaletar, kaletarra. Baserritarra ez dena. "Kuadrilla ortan geixenak kaletarrak die".

Kaleume, kaleumie. Kalekume. "Oxek eztiz baserrikuk kaleumik die". Ikus kaletar.

Kaltzeta, kaltzetie. 1. Kafea filtratzeko tresna. "Kaltzetie eka-
rrizu kafe pasau ber det ta". 2. Andreen galtzerdiak. "Gure
amamak beti kaltzeta motzak ibiltzeittu, belauneaiñokuk".
3. Kaltzetinak. "Gaur errealeko kaltzetak jantzikoittut".

Kaltzetako kafe, kaltzetako kafe. Lapikoko kafea. "Gure
etxin oiñe, kaltzetako kafe eotea".

Kamaburu, kamaburue. Ohearen burukoa. "Goizin kama-
burukin kriston ganbelakue artu det".

Kamape, kamapie. Ohe azpia. "Zapatak beti kamapin
eukitzeittut".

Kamazpi, kamazpuxe. Ohe azpia. Ikus kamape.

Kankaillu, kankaillue. Handia eta baldarra den pertsona. "Ba
al dakizu ze kankaillu dan? Gutxiñez bi metro neurtzeittu".

Kanpantxille, kanpantxillie. Aho-gingila. "Bulleka astea-
nin, kanpantxillire ikusi eitte zako".

Kanta. 1. Abestia. 2. Bide, itxura. "Gauzik damakixen kanta
ikusitte, eztaikit illin bukaera nola aillau ber deten".

Kantoi, kantoie. Kale izkina. "Kale kantoiraino jun ta buelta."

Kantxill, kantxille. Ura edateko balio duen buztin egosiz-
ko ontzia.

Kantzau. Nekatu. "Beti iguela esaten kantzau nauk". Ikus nekau.

Kantzel, kantzela. 1. Hala deitzen zaio lehen eskolak zeu-
den eliz atzeko lokalei. "Gaur kantzelien billerie daukeu
Don Jenarokin". 2. Kristau ikasbidea, dotrina.
"Eskolatik ertendakun kantzela daukeu".

Kañada, kañadie. Saldatarako erabiltzen den hezurra.
"Lapikokue ta kañadie jarritzu, bai?".

Kañara, kañarie. Ikus kañada.

Kapillaketan eiñ. Abarketei tela josi. "Kapillaketan etxin
eitte gendun".

Kapixo, kapixue. Karga bati eusteko lana egiten duen
elementu horizontala.

Kargaute. 1. Pisu asko daramana. "Plazatik ona konprakin kar-
gaute etorri naun". 2. Haurdun. "Amaxeï urtekin kargaute
geldiu den". 3. Edanda. "Sapaturo bezela, etxea kargaute".

Karkax, karkaxa. Ahotik botatzen den mukositatea.
"Katarrukin nabil ta eun osue karkaxak botatzen pasatset".

Karnazero, karnazerue. Harakina. "Karnazeruei enkarg-
gau dixot apaireko kostillie". (Karnazero eta karnizero,
biak erabiltzen dira).

Karrerista, karreristie. Korrikalaria. "Karreristie antxintxi-
ke zijunin eroi eintzan".

Karretu, karretue. Batetik besterako ibilera aldrebesa.
"Orrek zamerren gaur karretue!".

Karriau. 1. Garraiatu, eraman. "Egur oxek etxeaiño karriau
ber die". 2. Gobernatu. "Bei txarri auek ezin die karriau!".

Karro handi, karro handixe. Hartz nagusia.

Karro txiki, karro txikixe. Hartz txikia.

Karro, karrue. Orga, bi edo lau gurpileko ibilgailua, zamak
eramateko erabiltzen dena. "Belarra biltzeko len karrue
ibiltze gendun oin berriz tratorie".

Karroka, karrokaie. Askok. "Karroka bat suspenso ata
omen dittu".

Karta, kartie. Egunkari bateko herri albisteak. "Erriko kar-
tie letu al dek?".

Kaska motz, kaska motza. Ile motza. "Orko kaska motz
ori da nere illoba".

Kaskagor, kaskagorra. Buru gogorra. "Kaskagorra aiz ba! Nola esangok ba ori?".

Kaskagorri, kaskagorrixe. Ilegorria.

Kaskajo, kaskajue. Tontoa edo zentzugabea. "I aiz kaskajue!".

Kasketa, kasketie. Haserra. "Goizetik jaiki da kasketikin". Ikus kasketaldi.

Kasketaldi, kasketaldixe. Haserre aldia. "Anderie kendu dixo beste ume batek ta eundoko kasketaldixe arrapau du".

Kasko, kaskue. Apatxa. "Kaskuk moztu ber dizkou gaur beixei".

Kastau. Gastatu. "Gordeta nauzken diruk kastau dittut".

Kastor, kastorra. Biserarik gabeko kapela.

Katamarro, katamarrue. Basakatua. "Lengun mendixen katamarrue ikusi nun arbola batea ixotzen, gaur eun ez tie asko ikusten".

Katiau. 1. Lotu. "Komuneko papera katiaute eote zan". 2. Trabatatu. "Itzeitteunin katiau eittea". 3. Engantxau. "Jertsie katiau eintziten sarien ta zulue eintzikon".

Katillu, katillue. 1. Katilua. "Goizero katilluka bat kafesne artzet". 2. Bularretako poltsa. "Sostenan katilluk markie lagatzeit".

Katuil, katuille. Otsaila. "Otsaile katuille".

Katxapo, katxapue. Txerri arra.

Kazkar, kazkarra. Burua, buru hezurra.

Kazkarreko miñ, kazkarreko miñe. Buruko mina. "Kazkarreko miñez nabil azken bolaran".

kazkarreko, kazkarrekue. Buruan hartu edo emandako kolpea. Ikus ganbelako.

Keixe, keixie. 1. Gerezia. "Keixek biltzeitteu launen base-rixi en urtero". 2. Gereziondoa. " Keixek aurten lorez beteta daude".

Kepi, Kepixe. Bisera. "Mendire jute giñenin beti kepixe emate gendun".

Kerten, kertena. 1. Heldulekua. "Sartaixek kertenetik ez eltzeatik erre zea". 2. Ergela, adimen laburrekoa. "Kertena aiz geo!".

Kibiste, kibistie. Lokarriaren korapiloa. "Txikixei kibistie eitten erakutsi dixot".

Kikeraka, kikerakie. Koilarakada. "Kikeraka bat azukrekin naikue dauket".

Kili-kolo. Kolokan. "Beste bi ortz dauzket kili-kolo".

Kilipau. 1. Kilikatu. "Beti kilipatzen ai zat". 2. Kilikak naba-ritu. "Or ez ikutu, kilipau eitte naiz ta".

Kintzena, kintzenie. Soldata. "Kintzenie jasotzeko zai-zai eote giñen garai artan".

Kiño, kiñue. 1. Begi-keinua. "Jone urrutire ikusi nun ta kiño bat bota zin beixekin". 2. Keinua, imintzoa. "Egoitzek oso kiño berezixe eitteu burukin nerbioso daonin".

Kirrimarra, kirrimarrie. R gaizki ahoskatzea. "Kirrimarrie kentzeko jutea logopedana".

Kixkeldu. 1. Erre. "Euskitten eonin ixte kixkeldu nitzen". 2. Biziki haserretu. "Amorrun amorrakin kixkeldute bukau det".

Kixkix, kixkixe. Pelota barruko egur zatia.

Klarion, klariona. Klera. "Praka danak klarionakin zurittute dauzkezu".

Koittau, koittae. Gizarajoa, gajoa. "Ene koittae oiñ e eroi zea".

Komaitea. Esate baterako, konparazio batera. "Ordun gutxi-
xo irabazte zan, komaitea, zuek lanin etatzezutenakin".

Komeri, komerixe. 1. Gertaera bitxi edo nahasia, baina
barregarria edo larritasunik gabekoa. "Au den komerixe,
gu emen da axek an gure zai" 2. Itzulipurdia. "Soinketako
ordun komerixek eitte giñuzen koltxoneta gañin".

Konformidadin. Proporzioan. "Orrek konformidadin nere
baino gexo irabazteu".

Konpaitea. Ikus komaitea.

Konparaixo batea. Esate baterako. Ikus komaitea.

Konpezinau, konpezinaue. Lehengo auzoko arduraduna.
"Gure aitte leno Olasoko konpezinaue zan, oiñ nai dun
dana eiñ leike, auzotan olakoik eztaota".

Konpitte, konpittie. Gozokia. "Jaxetan izete zan konpittek
erosteko eune".

Konpittei, konpitteixe. Gozotegia, gozodenda. "Konpi-
tteixe erdikalín daukebe".

Konpittero, konpitterue. Gozogile. "Konpitteruna buelta-
ka ibiltze giñen jaxetan".

Kontra. 1. Aurka. "Realak Bilbon kontra jokatzu". 2.
Jatekoari laguntzeko arraultza botatzeari deritzo.
"Arraultzie botakoizut saltsa orren kontra".

Kontrako eztarri, kontrako ezarrixe. Okerreko eztarria,
arnasa hartzen deneko bidea. "Kontrako ezarririk jun-
tzat jatekue".

Kontuesata(i)lle, kontuesata(i)llie. Hizlari. "Ixilik eon ai!
Ire baiño kontuesataille obio zauden da emen!".

Kopetako, kopetakue. Buruan hartu nahiz emandako kol-
pea. "Aldeiek urrutire, bestela kopetakue artukok ta!".
Ikus Koskorreko.

Korkox, korkoxa. Bizkarrean irtetzen den irtengune naba-
ria. "Zure amama geruo ta okerro dao. Korkoxa ta dana
ata zako".

Korputz bide, korputz bidie. Anda bidea, kanposantura-
ko bidea.

Korroska, korroskaie. Korroskada. "Eun osue korroska
botatzen pasatzeu narras orrek".

Kortan ogi, kortan ogixe. Orbela eta ote txikia pilatu eta
gero ongarri bezela erabiltzea.

Kortxeta, kortxetie. Arropak zintzilikatzeko ibiltzen den
egurrezko nahiz plastikozko tresna. "Emaitzu kortxeta
geixo emengo erropa auek ixiri ber dittut ta".

Koskabiluk. Barrabilak. "Olako lasaitasunekin bizi leike
moteill, ori koskobiluk!". Ikus potruk.

Koskor, koskorra. 1. Txikia. "Mutil koskor batek kendu
dixo baloie". 2. Borobil antzeko itxura duten zenbait
gauzaz esaten da. "Koskor minbera batek erten dit
besun". 3. Barrabila. "Baloiek juxtu koskorretan eman
zixon". Ikus marmittek 2.

Koskorreko, koskorrekue. Buru hezurrean eman edo
hartutako kolpea. "Oñe artu du koskorrekue lexukin".
Ikus ganbelako.

Koskorretako, koskorretakue. 1. Kolpe hartu edo eman
buruan. "Koskorretako galanta artu du atin kontra". 2.
Atsekabea, nahigabea. "Lanetik bota zebeñin kriston
koskorretakue artu zun".

Koskortu. Hazi, handitu. "Pixket koskortutekun jungo zea bakarrik".

Kotie eiñ. Jokuan sorte handia daukana. "Gaurre eiñ det kotie".

Kotoi, kotoie. 1. Algodoia. "Oxigenaue bota ta kotoie pasaukoizut irikixen". Ikus guata. 2. Algodoia, mataza. "Gasolineran kotoie falta zan ta eskuten usai txarra dauket".

Kottau, kottaue. Gajoa, gizarajoa baina zentzu maitakor batean. "Ene kattaue, zer dezu oingo ontan?".

Kraskateko, kraskatekue. Pitzatzen deneko zarata. "Kriston kraskatekue ata zun mai arek".

Kristau, kristaue. Pertsona. "Ori eztek kristauek eitteko moduko lana, moteill!" (Ezezkoetan erabiltzen da batik bat).

Kriston, kristona. 1. Handia, izugarria. "Kriston bokaillue jan diñabe!". 2. Gazteen artean oso. "Kriston earra dao zure mutil ori!".

Kristoneko, Kristonekue. Handia, izugarria. "Kristoneko girue eitteu!". Ikus kriston.

Krixketa, krixketie. Kisketa. "Attek berandu aillau giñelako, krixketikin atie itxite zauken".

Kuadrau, kuadraue. Laukiduna. "Eztik txarra erten alkon-da kuadrauek!".

Kubriu. Osatu. "Bandan 42 laun eongoiz ta nik ustet bas-tante kubriute daola".

Kukurruku eztule. Eztul gogorra eta itsusia. "Ori kukurru-ku eztule daukezuna, medikuna jun berkozu".

Kulero, Kuleruk. Kulero. "Amari urtetan kuleruk erregalau genizkon". Ikus pantalo bisten.

Kulpitto, kulpittue. Pulpittoa. "Kulpittotiken bota zun sermoie apaizek".

Kuma, kumie. Sehaska. "Kuman dauket umie".

Kunpliu. Norbaitekikoa egin. "Gaurre ni etorri ta trastie ipintzeako bi-irur laun baneuzken zai emen, axei kunpliu ta lasai eon naiz".

Kurioso, kuriosue. Dotorea, garbia, txukuna. "Kurioso eitte zittun arek lanak".

Kurloi, kurloie. Txolarre. "Kurloi mordo bat badabiltze azkenaldixen inguru auetan".

Kurruxke, kurruxkaie. Garrasi. "Umie kurruxkeka ibilli da gau osuen".

Kurtidei, kurtideixe. Larrua ondutzen den lekua.

Kurutze barrun jokau. Jolas bat. "Kontzejupin bi kuadro-en artin eitte zebeu kurutzie".

Kuttun, kuttune. Maitea. "Etorri, nere kuttune".

Kutun, kutune. Amuletoa. "Beti emate zun bere kutune katin txintxilike".



La(g)un, la(g)une. 1. Adiskidea. "Kuadrillako lagun batek otsein dit". 2. Bikotea, erropei buruz ari garenean. "Ama! nun dao kaltzeta onen laune?". 3. Pertsona. "Majiña bat laun juntau die Ernixoko eunin."

Laa. Laga, utzi. "Aizu! laa zumue bere tokixen!".

Labore, laborie. Barazki. "Laborik landatzeittou geixen bat".

Laiñ. 1. Adina. "Amen ez dago danantzako laiñ diru". 2. Gauza, kapaz, gai. "Ez naiz gauze danetako laiñ".

Laiotz, laiotza. Eguzkiak jotzen ez duen tokia, iluna.

Lakai, lakaixe. Pisuzko neurria, 3 kg. "26 lakai baba eka-riko al diztek urrengo asteako?". Ikus imilaun.

Lakar, lakarra. Latza. "Ze atzapar lakar die oxek!".

Lamara, lamarie. Jende asko dagoen lekuan sortzen den berotasuna. "Kriston lamarie dao, eztao arnasie artzeik".

Lanbro, lanbrue. 1. Xirimiria. 2. Laino itsua. "Mendire jun gitxiñenan eta goxen kriston lanbrue zaonan".

Landure, landurie. Laino itsua izan gabe, laino xehe moduko bat, airea heze egoten da.

Langa, langie. Mendiko hesietako pasoa. "Emendik Marixa bi langa pasau ber die".

Lantei, lanteixe. Lan handia. "Zuek artu deuzte lanteixe ori dana txukuntzen".

Lantzurde, lantzurdie. Lantxurda. "Kongeladoran sar-tzeittoun jatekuk, lantzurdez beteta ertetzeñabe".

Lapiko! Kaikua, tentela. "Beti negarrez ao, lapiko!".

Lapiko, lapikue. Janariak egosteko erabiltzen den ontzia. "Lapiko berrixek erosi dittut, danak izurraute dauzket".

Lapikoko, lapikokue. 1. Potajea, eltzeko janaria. "Gaur gure etxin otz onekin lapikokue eongoa bazkaltzeko". 2. Gisatzeko haragia. "Ipiñiztek libre t' erdi lapikoko ta pare bat ezur".

Lapikotxiki, lapikotxikixe. Kontakatila. "Ixilduai, lapikotxiki!".

Lapratx eiñ. Txirrist egin, irristatu, labaindu. "Lapratx eiñ da txorkatillie trukau zako".

Lapratx, lapratxa. Narraza. "Leku au dana lapratxa dao ziero".

Lardaskau. Narraztu. "Lanak eitten asi, ez bukau, ta dana lardaskaute utzi zun".

Latxa. Takarra. "Artillie oso latxa izetea".

Latz, latza. 1. Takarra. Ikus latxa. "Frontoiek beie latza eukitze zun." 2. Ona, mundiala "Festie latza jun unan".

Laugorrixek pasau. Gorriak ikusi. "Laugorrixek pasau di-txik gaixotasun orrekin, baiñe, oiñ ondo jarri den".

Laugorrixen. Lo egin gabe zerbaitegatik kezkatuta. "Sapatue allau da ta or eon berkoñau laugorrixen, i noiz etorriko kezkan".

Laurena. Laurdena. (Orduekin batez ere, gutxi erabilia). "Ordubata eta laurena".

Le(g)en, le(g)ena. Azaleko gaitza. "Negun beti eskun legena ateatze zat, eztakitt otzana izengoan eo...".

Leera, leerie. Gurdia erroberarik gabe, gurdia baino txia-kiagoa da.

Leikena. Posible. "Gaurre leikena da berandu allatzie".

Leizezulo, leizezulue. Haitzuloa. "Erri txiki artako leizezu-lo baten gizon bat ikusi gendun, an bizi zana".

Lekutea. Zerbait edo norbait oso urrutira joan dela adie-razteko. "Lekutea jun tzeate ogi bille".

Lekuteko, lekutekue. 1. Zerbait edo norbait oso urritikoa dela adierazteko. "Lekutekue da ba, Kanadan eo bizi omen da". 2. Ederra. "Lekuteko mutille den ba!".

Lengo baten. Aurreko egun batean. "Lengun Aitor ikusi nun gure etxe aurrin".

Lengun. Ikus lengo baten.

Lengusu txiki, lengusu txi(k)ixe. Bi lehengusuren seme-alabak beraien artean hala dira. "Nere lengusu txikixe gurekin kuadrillan ibiltzea".

Leon-kastillo. Kara-kruz. "Euskadiko bueltie astea zijun ta kuadrilleko bakoitzek karreriste bat aukerau bertzun, ordun lelana zeñek aukerau leon-kastillon jokau zeben. Leon erten tzun da lñaki asi zan".

Leor, leorra. 1. Hezetasunik gabekoa. "Aurten euri gutxi eiñ du ta lurrek leorrek daude." 2. Animatzen ez dena. "Zegamako festata jun giñen ta dantza pillo bat eiñ gendun, baiñe nere gizon au polboroie baiño leorro zan ba, ta etzun bate dantzaik eiñ. Oiñe leno bezalakotxe leorra da, ez ta ezertako animatzen".

Lepa(g)aiñ, lepa(g)aiñe. Garondoa, kokotea. "Jatzemaut lepaiñin! Gorri-gorri einde laakoiat"

Lepaezurre, lepaezur. Lepo-hezurra. "Lepaezurretik gora eiñ natxik!".

Lepasamar, lepasamarra. Lepoa. "Lepasamarretik eusten baldin baiat!".

Lepo, lepue. Lepoa. "Lepo luzie aiz ba!".

Lepo. Askok. "Eran da jan, lepo eiñ gendun".

Lerdo, lerdue. Tontoa, kaikua. "Lerdue zea ba, beti txora-kei iguelak eitten ibiltze zea".

Letu. Irakurri. "Letu asko eitte zun ta leturikin batea musikie gustoko zun".

Letxera, letxerie. Karez egindako pintura urtsua.

Liberdi, liberdixe. Neurria, libra erdia edo 250 gr. "Beste liberdixere ipini zu".

Librau. 1. Libratu, askatu. "Anan semie atzo gabin librau emen debe". 2. Kaka egin. "Sagar konpotie eitten ai naiz, libratzen laguntzeit ta".

Libreko, librekue. Ogia. "Gure etxin beti librekue erostea".

Lijer, lijerra. Arina. "Orrek ezta asko pixauko, lijerra da ziero".

Like, likie. 1. Likina. "Eskuk likez beteta dauzket, txupa-txuze jan det ta". 2. Txoriak itsatsita harrapatzeko gaia.

Limonada, limonadie. Gaseosa. "Faorez, zerbeza bat limonadakin ataizu".

Litroko, litrokue. Esnea neurtzeko litro bateko ontzia. "Litrokue nolakue nai dezu, plastikozkue o inoxidable?".

Litx, litxe. Oihala, arropa eta horrelakoetan agertzen diren ile-aren antzekoak. "Jertse onekin prakak litxez bete zatxit".

Litxerkei, litxerkeixe. Gozokia. "Zineako litxerkeixek erosikotteu!". Ikus konpitte.

Litxerrero, litxerrerue. Gozokizalea. "Gure au bai dala litxerrerue, eun osue litxerkexek jaten ai da".

Liztai, liztaixe. Gauzak biltzeko erabiltzen den hari sendoa. "Korreosko paketik liztaixekin lotzeie".

Lizune. Hauts itxurako azal zuri-grisaxka. "Oñe gaztaiei lizune erten dixo".

Loerre, loerrie. Umea loguretuta dagoenean. "Biberoie emateko esnatze mazu, ume onek eokikou loerrie".

Loerretute eon. Lo egin nahi baina ezinean egon. "Umie loerretute zio gaur".

M

Loko. Gauza bat kili-kolo gelditu dela adierazteko. "Maatillie loko dabil ta atie ezta ondo isten".

Lokomuxe, lokomuxie. Lo kuluxka. "Bazkal ondoren lokomuxie eittie gustatze ziten".

Lorau. 1. Landareak loreak eman. 2. Edanarekin edo sukarrarekin begiak, argitu, bizitu. "Ze, Iñaki, gaurre zenbat kalimotxo eran dittuk? Daoneko beixek loraute dauzkek!".

Luduzke. Baloi jokua, bi talderekin jolasten dena.

Lurmen. Elurra urtuta. "Emen elurre eote zanin kostan lurmen eote zan".

Lurmendu. Elurra urtu.

Lustriaketa, lustriaketie. Disdira ateratzeko lana edo jarduna. "Jai eguardixen lustriaketie bi erata eitte zan".

Lustrie. 1. Disdira. "Lurrei lustrie ata ber izete giñon". 2. Betuna. "Zapatai lustrie eman, zikiñek daude ta!".



Maatille, maatillie. Maratila. "Garai batin Azkoittiko udal txin ate danak urrezko maatillie omen tzaukeben, ate axek irikitzie earra izengo zan ba".

Maats, maatsa. 1. Nahaspila "Au den maatsa daona sukalde ontan arratsaldeko bostak eta oaindik sukaldie jasotzeke". 2. Txoilloa. "Dirudun mutil batekin asi da, orrek bai daukela maatsa!".

Maistra, maistrie. Irakasle emakumezkoa. "Maistra berrixe daukeu aurten".

Majiñe bat. Asko. "Majiñe bat ariketa einditxiñat nik olakuk". Ikus bajiñe bat.

Majo. 1. Asko. "Majo sufriutekuk gaittuk gu". 2. Ondo. "Majo janda irten diau".

Makakorro, makakorru. Orrua. "Gusanituk ez nizkolako erosi makakorroka jun tzan etxeaiño."

Makal, makala. 1. Astiro. 2. Pertsona ustela. "Ene, makala da ba, ezertako kemenik eztauke".

Makaldu. 1. Astiroago joan. 2. Gaixotu. "Azkenaldixen makaldute zabillen gure ama".

Makalik. Gaixorik. "Ezta recuperau, oindik makalik dabil".

Makar, makarra. Begietan pistak. "Gure umik, goizin jaitzaneanin kriston makarrak eukitzetxin, mantzanilla pixketekin garbiu ta kitto!".

Makinistak. Mende hasieran, abarketa fabriketako langileak.

Maldiixo, maldiixue. Madarikazioa. "Bazun kejie ta maldiixue atzo".

Mallau, mallaue. Zerbait kolpe batez builatu. "Lengun batematek kotxin kolpie jo ta dana mallaute utzi ditt" .

Mallu, mallue. Mailua. "Mallue ta puntepaxak ber dittut bierko".

Mallubi, mallubixe. Marrubi, mailukia. "Laste asikoa mallubi bolarie".

Malluka, mallukie. Mailu txikia. "Ekarrizu mallukie erramianta kajatik puntepax hau sartzeko." Ikus maillu.

Mama goxo, mama goxue. Zorte ona adierazi nahi du.

Mama. Pagotxa, zorte ona adierazteko. "Arek bai euki zula mama loterixe tokau zikon eunin". Ikus mama goxo.

Mamaxa. Pagotxa, zorte ona. Ikus mama.

Mamixela. Andereñoa, pinpirina. "Ori txikittetiken izen da oso mamixela".

Mamorro, mamorrue. Intsektu mota bat. "Ez naiz mamorro bat akaatzeko laiñ sekule izen" .

Mandixo, mandixue. Baserrietan ganbarari deitzen zaio, karroak eta gurdiak gordetzeko erabiltzen da batez ere. "Mandixoko atie konpondu ber deu".

Manejarra, manejarrie. Lapurreta. "Agintai jende onek ibiltzeu manejarrie".

Manejau. Lapurtu. "Kotxeko erreberak manejau zizkuben atzo kalin!"

Manga, mangie. Mangera. "Etxik sue artu omen tzun, ta bonberuk seittun etorri zin mangikin".

Mangaixo, mangaixue. Nekatuta, juerga edo lan handia egindakoa, leher eginda. "Au dek mangaixue dauketa gaur!".

Mangau. 1. Leher eginda. "Atzokue latza jun unan, mangaute natxion". 2. Lapurtu. "Zeinek mangau dizte nere borragomie ta arkatza?". Ikus manejau.

Mani-mano. Pilotan, bat baten kontra jokatzeari deritzo, banaka. "Belokik ta Goñik mani-mano jokau zebeñ atzo".

Manijurrixek. Lardaskeriak, txapuzak egitea josten.

Mantsoatik. Azkar, arin. "Mantsoatik eiñ nitxiñan eskolako deberik, gero kalea irtetzie nai niñan da". (Mantsuatik ere erabiltzen da).

Mantux, mantuxe. Mantila. "Amak bere mantuxin artu zun umie".

Mantuxetako ume, mantuxetako umie. Mantilako umea. "Mantuxetako umikin azaldu zan gure etxea".

Mañak eiñ. 1. Laztandu, maite-maite egin. "Mañak eittie danoi gustatze zaku". Ikus maitte-maitte eiñ. 2. Negar egin. "Ezizu mañaik eiñ, eztizut karameloik erosiko ta".

Mari maixtra, mari maixtrie. Asko agintzea gustatzen zaionari esaten zaio. "Pentsatzeu beti bearek nai duna eiñ ber deula, mari maixtria utse da".

Mari mutil, mari mutille. Mutilen joerak dituen neskari esan ohi zaio. "Axen ama mari mutille ta takarra da, ba!".

Mariposak. Ur-oliotako kandelatxoak.

Markari, markarixe. Oihalak markatzeko erabiltzen den klariona. "Ekarrizu markarixe, tela au nundik moztu markau ber det eta". Ikus jabonzillo.

Marmar, marmarra. Ahopeka hitzegin. "Egun osun ibilli zun marmarrare ikustekue izen tzan".

Marmarrin. Haserretuta dagoenaren zurrumurrua. "Or jun da oiñ e marmarrin, beti asarraute dabil".

Marmitte, marmittie. 1. Esnea eramateko ontzia. "Ekarrizu marmittie esnie banatzea jun ber det ta". 2. Pluralean, barrabilak. "Ik dauzkeittuk marmittek moteill!" .

Marruskau. Igurtzi. "Jertsie eskuz garbiu ta ondo marruskau".

Marta. Leloa, zontzona. "I aiz marta, sekule ez aiz espabilauko" .

Martinga. Trikimailua. "Ze martinga darabilzu oñe esku artin".

Martxa, martxie. Asmoa, plana, ideia. "Nolako martxie zion bierko?".

Martxie eiñ. Joan. "Girue oztu zunin martxie eiñ giñenan".

Mata(d)ei, mata(d)eixe. Animalien hiltegia. "Oñ mataei-xen taldik jutettun ensaiatzea".

Materi. Animalien hiltegia. Ikus mata(d)ei. (Nemesio Etxaniz, 1992).

Matra(i)ll, matra(i)lle. Matraila, masaila. "Gure Nereak arpei borobil borobile ta jateko moruko matrallek dauzke".

Matra(i)lleko, matra(i)llekue. Belarrondokoa. "Attek kriston matrallekue eman tzixon".

Matte-matte eiñ. Laztandu, ferekatu. "Nearrez ai danin matte-matte eiñ ta seittun pasatze zako". Ikus mañak eiñ 1.

Mattetasun, mattetasune. Maitasuna. "Guk matxue emate gendunin maitetasune zauen".

Matuti, matutixe. Goizeko zortziak laurden gutxiagoko kanpaiak.

Matxo, matxue. Musua. "Guk matxue emate gendunin maitetasune zauen".

Maxixau. Kuxkuxean ari. "Oxek maxixau besteik eztebe eitten".

Maxpildu. Txikitu, zanpatu. "Fruta gaiñin jarri ta dana max-pildute laga zun".

Mazkala, mazkal. 1. Ahula. "Gaxoik eon zanetik, mazkal jittie zauken orrek". 2. Ganoragabea. "Bero onekin mazkaldute nitxion etzaukenat ezertakore gogoiken".

Mazkalgure, mazkalgurie. Alfer gurea. "Nekaute naonin mazkalgurie sartze zat".

Meladie arrapau. 1. Euriz blai egin. "Jaxen Txindokire jun ta kriston meladie arrapau giñian, denbora osun eurixe ein tziuan". 2. Mozkortu. "Atzore sagardoteire jun ta meladie arrapau giñian".

Melaute. 1. Blai eginda. "Burutik ankataño melaute etorri zien mendi bueltie eittetik". 2. Mozkortuta. "Ardo potzo galanta ean da, dana melaute azaldu zan etxea".

Mendi ne(g)ar, mendi ne(g)arra. Ur jauzia. "Kanadan eon giñenin kriston mendi nearrak ikusi giñuzen".

Mendin artu. Menpean hartu. "Arek eztu bazparere bere mendin hartzen Jon, beare baiño geixo da ta".

Mendin. Menpean. "Talde osue leenengo astetik bere mendin zauken".

Menoxin artu. Gutxietsi, gaitzetsi. "Lantegi earra artutere, orren lana memoxin artukoa beti".

Merixo, merixue. Udaltzaina. "Sapatu gabin merixue etorri zan tabernie ixtea" .

Merkexurrin ibilli. Zuhurkerian ibili. Ikus xur. "Beti merke-xurrin ibiltzea pezeta bat nundik ateako".

Mike, mikie. Jatekoekin berezia den pertsona. "Beti plate-rran bueltan zeoze laatzeu mike orrek".

Millegro, millegrue. Miraria. "Andik bizik ertetzie millegrue izen tzan".

Minbera, minberie. Mindua. "Eroi nitzenetik minberie dauket belaunien".

Minberau. Mindu. "Ausitteko eskun, kolpie artu det ta dana minberau zat".

Miñ, miñe. 1. Mina. 2. Bizia, pikantea. "Jateko au, nere gustoako miñe zion".

Mira, mirie. Arraroa, bitxia. "Au mirie emen argibe eotie, sekule etzat tokau ola eotie".

Mistika tulisabelika. Neska ahula. Ikus anime.

Mixikordiko madrie. Madarikazio bat. "Berriz asi ber dala? Ba, mixikordiko madrire bai!".

Mixtu. Miazkatu. "Azkenengo ezurre re mixtu ziñan arek".

Mixurka, mixurkie. Mertzika.

Mokordo, mokordue. 1. Nahastea. 2. Ume mokordoa, lata handia ematen duen umea. 3. Kaka piloa.

Molda, moldau. Konpondu. "Neu bakarrik moldauko naiz".

Mondroska, mondroskie. Baldarra, traketsa. "Ainara balontzeston ibiltzeko oso mondroskie zan, beti lurrin eote zan".

Mordo, mordue. Asko, ugari. "Jende mordue etorri zan gu bixitatzea". Ikus Mordo-mordue.

Mordo-mordue. Asko, ugari. "Nik kromo mordo-mordue dauzket ta zuk ez!".

Moritto, morittue. Ubeldura. "Gure onek berna ezurrek beti morittoz beteta dauzke". Ikus odolbitto.

Morokil, morokille. Artirinez egindako janaria.

Motel, motela. 1. Makala. "Pelotie motela izete zan."

Motel, motela. 2. Mutil. "Motel, motel, noa ue?". (Motel eta moteill biak erabiltzen dira).

Motxa(i)lle, motxa(i)llie. Ijtoa. "Atzo Azkoixen auntzekin ibiltzeizen motxailik ibilli zin, diru eske".

Motz, motza. 1. Pertsona txiki eta zabala. "Semik ziero diferentik zauzkenat, zarrena agie aña luze ta bestie berriz motz-motza." 2. Gauzak azkar harrapatzen ez dituen. "I motzanekeue al aiz ?".

Mozkortzio. Asko edan ohi duenari esaten zaio. "Oiñe erainin, ze mozkortzio aiz !".

Mozkote, mozkotie. Pertsona txiki eta zabala. Ikus motz 1.

Mozolo, mozolue. 1. Tontoa, zentzu maitakorrean. "Ene, mozolue aiz ba! zenbat jo ber dibe iri adarra! ". 2. Atzeratua (Down sindromeduna). "Mozolukin ibiltzea sapatu arratsaldetan".

Muiñ, muiñe. Esku pilotaren barruko aldea. "Pelotin muiñe nola eittean inportantie izetea".

Mundial, mundiala. 1. Zoragarria, ederra. "Ikusiko zute nola tipo mundiala dan". 2. Zoragarri, ondo. "Mundial pasau deu eskolako eskurtzixun".

Mune. Hezur muina.

Murkil eiñ. Murgil egin, buruzka ur azpira salto egin. "Plaiko uretan murkil einez ibiltzie gustatze zako oni".

Muruska-marraska. Haserre muturrez. "Azken aldi ontan muruska- marraska zabillen".

Musikero, musikerue. Musikaria, musikajolea. "Erriko musikerotako bat izen tzan aure".

Muskerak. Mukiak. "Muskerak kendu itzan".

- Musu, musue.** 1. Sudurra. "Arek bai daukela musu luzie".
2. Aurpegia. "Musue garbiu".
- Musu-zuluk.** Sudurreko zuloak. "Eman ber musu zuluk aundittu eitte zaizkola asarratzeanin".
- Musualde, musualdie.** Aurpegia. "Musualde ortan antzematate zikon zenen alaba dan". Ikus musu 2.
- Mutilaun, mutilaune.** Senargaia. "Oindik eztu ona ekarri mutilaunik".
- Mutill gazte, mutill gaztie.** Mutil gazte ederra. "Ori mutill gaztie topau duna zure aizpek!".
- Mutill, mutille.** 1. Gizon ezkongabea. "Goiko baserriko mutille il da 82 urtekin". 2. Mutil laguna. "Festatan topau omen du mutille".
- Mutilzar, mutilzarra.** Gizon ezkongabea.
- Mutur, muturre.** 1. Ertza, izkina. "Zuri mai muturrin jartzie tokau zatzu". 2. Muturra.
- Muturrea esan.** Aurpegira esan. "Asarraute zaon baten, ora etorritteko danak muturrea esan tzizkon".
- Muturretik e(d)an.** Botilatik edan. "Mille aldiz esan dixot ta alare muturretik eaten segitzeu".
- Muturrez aurea.** Aurreraka. "Muturrez aurea eroi ta musue autsi omen du".
- Mutxikiñ, mutxikiñe.** Sagar edo udarearen bihotza. "Sagarra bukatze zunin, mutxikiñe basurea bota e!".
- Mutxillo, mutxillue.** Meta txikia. "Gaur arratsaldien atzo eindeko mutxilluk jaso ber ditxiau".
- Mutxo.** Pelota zaila bueltatzean esan ohi den espresioa.
- Mutxur, mutxurre.** Meta txikia. Ikus mutxillo.



- Maatille, maatillie.** Maratila. "Garai batin Azkoittiko udaletxin ate danak urrezko maatillie omen tzaukeben, ate axek irikitzie earra izengo zan ba".
- Naazki, naazkixe.** Ogi beltza, integrala.
- Naparrei, naparreixe.** Gaixotasun bat, barizela.
- Narrats, narratsa.** Zikina. "Parkin ibilli ta narrats-narrats einde etorri zan gure umie".
- Natural, natuala.** Ohizkoa, normala. "Min orrek ezin du izen natuala, askotan pentsau det medikuna jutie".
- Natubittate, natubittatie.** Eguberri eguna.
- Natul, natu(a)la.** 1. Betea, osoa izan. "I ez aiz natula". 2. Berezkoa. "Ardi gazta natula, gatzaxekin ta ola, lengo tipoa".
- Naturalidade, naturalidadie.** Berezkotasuna. "Naturalidadikin eitte zeben ori".
- Naxena.** Gehien nahi dena. "Naxena irakaslie ez etortzie, jai eitteko!".
- Naximentue, naximento. Jaiotza. "Gabonetan beti gure etxin naximentue ipintze deu".
- Neska, neskie.** 1. Emakume ezkongabea. "Ango baserriko neskie il da, 87 urte zauzken". 2. Neska laguna. "Azkenin beintzet topau du neskie".
- Neskalagun, neskalagune.** 1. Emakumezko laguna. 2. Andragai.

Neskazaar, neskazaarra. 1. Emakume ezkongabea. "Neskazaarra geldiu da gure Maria Elena". 2. Bateko urrea. "Erdiko dana jasotzeko neskazaarra tokau ber".

Noiznai. Edozein momentutan. "Txiki-txikitatik bi neska euki zittun ta noznai tinbrie jotze zebe bere bille etortzeko".

Normalin. Ia beti, orokorrean. "Normalin ola ibiltze zin itz oxe, Azkoittiko era".



Odolbitto, odolbittue. Odol bildua. "Besun atxumurke eiñ ta odolbittue erten tzin". Ikus moritto.

Oeko-erropa, oeko-erropie. Oheko izarak. "Bier aldauko deu oeko-erropie".

Ogi arrallau, ogi arrallaue. Ogi birrindua. "Xarradak oiñ ogi arrallauten pasau ta sartaire". Ikus arrallau.

Oi. Ohi. "Beti lan ori eiñ oi zun".

Oillar-joko, oillar-jokue. Oilar burruka. "Leno Errebalin oillar-jokuk izete zin".

Oillogaitz, oillogaitze. Bikoteen arteko haserrea. "Pareja guztixek oillogaitze pasatze omen debe bigarren urtin".

Oilloloka, oillolokie. Oilo loka. "Oillolokie ematen eun osue sofán jarritte, jaikittekin txituk irtengoñabe azpittik"

Oiñeztarri, oiñeztarrixe. Tximista.

Oiñurrungun. Orain hurrengoan, lehengo batean. "Oiñurrungun ikusi giñian".

Oker, okerra. 1. Ezbeharra. "Okerrik ez ba, antxe izengo gea amarretan". 2. Gaiztakeria. "Okerra okerran gaiñin besteik eztu eitten".

Okerra eiñ. Kalte egin. "Okerra einde zio, ta oiñ alperrik dek bueltaka jardutie".

Okuillo, okuillue. Ikuilua.

Omaai, omaaixe. Ore mahaia.

On berrez. Ondo beharrez. "Beti bere on berrez jardun, ta sekule eskertukounik ez!".

Ondar, ondarra. Hondartzako hondarra ez denean. "Ondar sako mordo bat ekarri dittube masie eitteko". Ikus arena.

Ondarrak. Jateko soberak. "Astelenin bazkaltzeko, jaiko ondarrak izeteie gurin".

Ondarrau. Hondoratu. "Barkue ondarrau zan etxesun".

Ondo, ondue. 1. Biharamuna, ajea. "Ondo pasau bai baiñe urrengo euneko onduere latza jun unan". 2. Barrena. "Buro ondue gorrittute daukezu".

Ondra etxe, ondra etxie. Hildakoaren etxean edo honen izenean egindako oturuntza. "Anaixek asarrau eiñ tzin ondra etxin erentzi kontuk zila ta".

Ondrau. Ugari, franko, asko. "Ur botillie ondrau beteta dao, irikitzeakun pixket eroitzea".

Onerau. Onera etorri. "Pasau dun naigabie ta geo ezin oneraute dabil".

Ooldi, ooldixe. Goroldioa. "Naximentue ipintzeko ooldixe ber deu".

Orañ, orañe. Orbana. "Orañ asko dauzke arpeixen".

Oranje. Garai batean laranjazko freskagarria. "Oranje ar-tzea jute giñen, guk ala esate giñon, oranje".

Ordots, ordotsa. Txerri ar gaztea.

Orduetz. Puntuala. "Kuadrillan beti orduetz azaltze gaittun, bost miñutue atzeatzeke".

Oriau. Aire berritu. "Parranda eiñ da gero, erropie oriatzea atatzeu balkoire".

Ortzak garbiu. Musukatu adierazteko ere erabiltzen da. "Or ibilli zin taberna erdixen, ortzak garbitzen".

Osau. 1. Zerbaiten bilduma egin. "Kromo bat falta zat dana osatzeko". 2. Iritsi "Osatze al aiz?" 3. Sendatu. "Osau arte oien eon ber diñat".

Ostiako, ostiakue. Kolpea. "Bi ostiako emango txiat ixilik eote ez baaiz".

Ostin. Bestela. "Nai nun dana saltzeko, erropie ez, ostin nai nuna".

Ostintzin. Osterantzean, bestela, Gainontzean. "Geo, ostintzin, ze esatie nai dezu". Ikus ostin.

Ostixena jo. Lata eman. "I, beste batena jun ai ostixena jotzea!".

Ostizaparra, ostizaparraie. 1. Zaparrada handia. 2. Jipoia. (Berria, gazteen artean erabilia). "Burrukie asi zanin arek jaso zian ostizaparraie".

Ostro beltza. 1. Joku batean aurrena ateratzen zuenak irabazten zuen saria. 2. Sarri irabazten duena.

Ostro, ostrue. Hostoa. "Letxuga ostro geixei dao emen".

Ostroko, ostrokue. Etxe bateko obrak amaitutakoan egiten den jana. "Zuena bukautekun ostrokue izengoiau ba?".

Ostu. Lapurtu. " Bizikletie ostu dibe".

Ota, otie. Oiloek lo egiteko ohea. "Egunero oillun otie garbiu ta preparatze deu".

Ote, otie. Landare arantzaduna, lore horia du. "Otiak asi-tekun, lenoko bire dana isteu".

Otseiñ. Deitu. "Aillautekun beintzet otseiñ".

Ottopotton eiñ. Edan. "Ottopotton eittie majo gustatzeza-ko ba orri".

Otxandu. Kokildu. "Denborikin otxanduko aiz".

Otzi! Hartu! "Otzi! emaizkon karamelo auek ire launei".

Oziñ, oziñe. Ibaian ur makal eta sakonera handikoa, bainatzeko egokia. "Aingerugarda aldin bai daola oziñ earra, majiña bat aldiz eiñ diau murkil an".

Ozpiko, ozpikue. Baserriko tresna, hortz bikoia. "Zopizertun eindekun, aure jiratzeko ozpikue ibiltzeñau".

Ozta-ozta. Juxtu-juxtu. "Ozta-ozta aillau gea trenea".



P

Pa(g)otx, pa(g)otxa. Zoria. "Orrek euki diñ paotxa lan ori topaute".

Pabrika, pabrikie. Lantegia. "Pabrika aldea abantatzea goizeko xeiretako".

Pakete, paketie. Aldrebesa. "Fuolin jokatzan beintzet, pakete utse den".

Pantalo bisten. Kulero bisten. "Atie iriki ta pantalo bisten ikusi nitxiñan".

Paola. Ganora gabeko esanak. "Ze paola dittuk oxek?".

Paolan. Kontu kontari. "An tzaudean, danak mai ingurun jarritte paolan".

Paotai, paotaixe. Pagadia. "Paoteire jute gattun udan lasai eotea."

Papelada, papeladie. Planta, itxura. "Familiarrak etorri zinin, aldemeneko neskie ekarri zebeñ neskamie izen bazan bezela, egun artan papeladie eiñ ber!".

Pardel, pardela. 1. Paketea. 2. Umei jartzen zaien pake-
tea. "Gure garaixen pardelik etzebeñ ibiltzen umik,
trapu bat, aure garbiu ta berriz ipiñi".

Pare. Bezala. "Onenan pare jatie gustatze zikon".

Paretxiki. Pelotak horma biren arteko ertza, erpina jotzen duenean. Ikus txost.

Parrasta, parrastaie. Jario. "Txixe parrasta earra bota nian!".

Parte oneko, parte onekue. Zerbaitek ona ezin duela izan adierazteko. "Onbeste suerte ezin din parte onekue izen".

Parte, partie. 1. Irrati edo telebistako albistegia. "Radixue piztute eukitzedeu partie aitzeko". 2. (Pluralean). Hankarte. "Bere partetan jo zixon baloiek ta zizko eiñde eon tzan".

Partz, partza. Bartza, zorriaren arraultza. "Partzak banan banan kendu ber izeteie".

Pasa. Pilota behar den marratik pasatzen denean. "Sakea jo ta bosteaño jun da, ordun pasa eiñ du".

Pasara, pasarie. Jipoaia, nekamena. "Mendi buelta luzie eiñ deu ta pasara earra arture bai".

Pase, pasie. Zerbaiten pasea. "Erregetan pasie ikustea ertetze deu".

Pasira, pasirie. Paseoa. "Loiola pasirie eittea jutegea eunero".

Pasmo, pasmue. Zornea . "Mendixen eiñ zun arrastaie, pasmoz beteta dauke".

Patata zulo, patata zulue. Galtzerdietan egindako zuloa. "Au patata zulue dauketana kaltzetan, nola eiñ otet?".

Patrike, patrikie. Poltsikoa. "Praketako patriken nauzken diruk arrapau zizkiben Madrideko metrun".

Pattal, pattala. Indar gabea, ahula. "Pattala dago aspaldixen Maria".

Pattar, pattarra. Koñaka. "Kafie beti pattar pixketekin".

Patxara, patxarie. Lasaitasuna. "Artuko nike aren patxarie!".

Patxaroso, patxarosue. Pertsona lasaia. "Are benetan patxarosue den ba!".

Pazintzi, pazintzixe. Opil txiki mota bat.

Pe. Gabe. "Dirui pe geldiu nitzen". Ikus be.

Pegamiñ, pegamiñe. Pegamentoa.

Pelota bizi, pelota bizixe. Pilota azkarra. "Narrue ipiñi aurretik pelotie elkortu eitte zan pelotie bizixo izeteko". Ikus bizi 2.

Pelota goxo, pelota goxue. Pilota biguna, partidu aurretik eskuak berotzeko erabiltzen dena.

Pelotero, peloterue. 1. Pilotak egiten dituen. "Iru pelotero eontzin emen, Azkottixen". 2. Zurikerian ibiltzen dena. "Peloterue aiz ba! Eztek pentsauko ba ola jardunde diru gexo emangoikenik!".

Pelotie gozau. Pilota jokatzeko prestatu edo gozatu.

Pelotie korriu. Pilotak hanka egin, ihes egin.

Pelotik tokie euki. Pelotak ateratzen duen hotsa. "Pelota onek toke earra dauke".

Penau, penaue. Gogorra, latza. "Betik gorare, penaue da biretxur are".

Pendiz, pendize. Aldapa. "Pendizin gora penaue eiñ tzikun bidie".

Perdiga(z)ixo, perdiga(z)ixue. Olio erretan tipula botatzea.

Pergamino, pergaminue. Zesta punta eta erremonteko pilotak egiteko erabiltzen den materiala. Eskuzko pelotan ahuntz narrua erabiltzen da.

Perla, perlie. Ezpainetan sortzen den handitua. "Ez tu nai muturretik eran, perlie dauke ta".

Perlesi, perlesixe. Elbarritasuna. "Perlesixek jota omen tziok!".

Pertxun, pertxune. Haitzur handia. Behien ikuilluko gorotza kentzeko erabiltzen da.

Pertz. Bakarrik, bere erara. "Nei mendire jun da pertz ibiltzie gustatze zat, neure era, presaipe". (Gazteen artean).

Pertza. Ederra, berezia. "Ori pertza dana motor ori!". (Gazteen artean).

Petardo, petardue. 1. Lehergailua. "Petardue jarri debela aittu det radixun". 2. Nekagarria den pertsona. "Ori bai dala petardue!". 3. Porroa. "Oñ e petardue eskun dula dao, kafie artzen".

Peto jo. Dirurik gabe gelditu. "Nik peto jo diñat ta ezin diñat ezerre geixo paau".

Peto. Dirurik gabe. "Duro bate etzaukenat, peto natxion".

Pezeta aundi, pezeta aundixe. 2 pezeta eta erdiko txanpona.

Pikardi, pikardixe. Naturak edo eta animaliek egindako kalteak. "Ori pikardixe! Amerika aldin oiñe ujelak izen die".

Pike, pikie. 1. Aldapa handia. "Emendik Erloa bezelako aldapa pikeik, ezta leku askotan eongo". 2. Gai beltzezka, likatsua eta biguna. "Zatun pikien bezelakue ematexou pelotan narruei".

Pillo, pillue. Asko, ugari. "Jende pillue dabil gaur errixen". Ikus mordo.

Pintto, pinttue. 1. Bi koloretakoa. "Bei pintto bakarra daukeu baserrixen". 2. Mestizoa. "Ume pinttue adoptau ber debe".

Piñ, piñe. Zuzena, zintzoa. "Arantxa neska langille ta piñe da geo".

Piñu ar, piñu arra. Pinu beldarra.

Piper eiñ. Eskolara joan gabe gelditu. "Zemat piper eiñ ete nun gaztetan?".

Piper, piperra. 1. Barazkia. 2. Pertsona errea. "Marisa maistrie, piperra unan beintzet!".

Piperretan arrapau. Eskolara joan ez eta norbaitek harrapatu.

Pipertu. Haserretu. "Pipertu eiñ den nerekin."

Pitx, pitxe. Bitsa, aparra. "Baso erdixe pitxez beteta eman dien".

Pitxerreko botillie, pitxerreko botillie. Zortzi litroko botila.

Pitxon, pitxona. Karabina. "Ume koskorra da oiñdik pitxonakin tiroka ibiltzeko".

Pitzau, pitzaue. 1. Pitzadura. "Atie pitzau eiñ da". 2. Buruko ikutu berezia. "Orrek zaukeik pitzaue, zea baño zelebrio dek!".

Piure, piurie. Itxura txarra. "Aitor Andramaxetan ziero mozkortute etorri zan etxea, ikusi eiñ bertzan ze piura ekarri zun, alkonda kanpun, prakak zikindute ta ze arpei. Ori piurie, ori!".

Plakau. Ihartu. "Udaratik ona ziero plakau da zuen semie".

Plantau. Jantzi. "Ama ontxe etorrikoa, plantatzen ai da kalea juteko".

Plazaberdure, plazaberdurie. Merkatua. "Plaza berdureko bueltie goizo eiñ det gaur".

Porlan, porlana. Zementua. "Zulue betetzeko, porlana botakobe".

Porra, porrie. Borra. "Porrikin ondo jo ber da ori, barroaño sartzeko".

Porrot. Kaniketan, zuloa eta zuloan sartzea. "Txikitten txiba-porroten ibiltzen giñen kaniketan, ta porrotin lele-na sartze zunak bestin kanikie irabazte zun".

Portunau. Suertatu. "Nola erderaz gutxi itzeitteun, portunatze zakunine, itzeitekore kostau eitte zaku".

Posture, posturie. Maila. "Posture artako palazixoik etzan asko".

Potor zuloaiño eiñ. Leporaino egin. "Potor zuloaiño einde natxion oinbeste fuolekin".

Potor, potorra. Alua. "Potor zuloaiño natxion lan onekin!".

Pott eiñ. Lehertu, akitu. "Nik ezin diñat geixo, pott eiñde geldiu naun".

Prabika. Lantegia. Ikus pabrika.

Prabikante, prabikantie. Langilea.

Praille motzak. Kartetan erregea, zalduna eta txota. "Partida ontan komeni zatzu praille motzak tokatzie". Ikus beltzak.

Praka zorro, praka zorrue. Ipurdi azpian, prakak betetzen ez direnean, ateratzen den poltsa modukoa. "Txandarra flojo dauke ta kriston praka zorrue ikuste zako".

Prakak. Galtzak. "Maonezko prakak jantzi dittu gaur Jonek".

Prejiute. 1. Prejituta. "Nei aragixe, ondo prejiute gustatze zat". 2. Nazkatuta. "Prejiute natxion beti kontu iguelak aitzen".

Proba, probie. Dema. "Idi probie dao gaur frontoien".

Pronto. Prest. "Gu pronto gaude ertetzeko".

Puntepax, puntepaxa. Iltze mota bat. "Pare bat puntepaxekin belaxe josikot atie".

Puntera, punterie. 1. Orratzez emandako puntua. "Barren oxei pare bat puntera eman ezkeo, gaurkue eitteko laiñ badaukezu". 2. Zer esanak. "Kotxie lagatzie nai du ta beti puntera botatzen ibiltzea".

Puntzixo, puntzixue. Elizkizuna. "Andra arek pasau zittun urtik meza danetan, bezpera danetan, puntzixo danetan dirue bitzen".

Purrusta, purrustaie. Purrustada. "Zeoze galdetzea junde, beti purrusta mat botatzeu".

Purtzill, purtzille. Narratsa. "I aiz neska purtzille!".

Purtzillun. Edozer moduz, narratsa. "Erropak or eukitzeitu beti purtzillun".

Pute, putie. Nazkagarria. "Berrize lan putie nei eittie tokau zat!".

Putetxeko madrie, putetxeko madre. Maldizioa. "Au dana jasotakun orire jaso ber dala? Bai, putetxeko madrire bai!".

Putxera, putxerie. Maskuria. "Au txixeurie dauketena, putxerie bete-bete einde zaukenat".

Puzkerbutroiek. Ikus uzkerbutroiek.

R

Raiatu, raiatue. Marraduna. "Nikixe erostea jutean bakoitzin, raiatue ekartzeu".

Ranga-ranga. Onomatopeia, ura edatean. "Pelotan jokau ta geo, etorri ta ranga-ranga erate zun ur txarrokaie".

Rapa-ropa. Onomatopeia, azkar-azkar adierazteko. "Bazkai osue rapa-ropa jantzun".



R

S

Sakakulosa. Jolas bat plazako arkupepetako eserlekutan egiten zena, Eserleku horiek izen horrekin ezagutzen dira.

Sakape, sakapie. Teilatua eta paretaren arteko zuloa. "Sakapien dirue gordeta eukitze zun gure amamak".

Sake librin. Pelotan nahi den lekutik atera daitekeenean. Pasa badago.

Sake, sakie. 1. Jateko erraztasuna. "Orrek zaukeik sakie, katxapue bezela jarrikok". 2. Pilota ateratzea. "Ori sakie eiñ duna!".

Salbie eittie. Kaso egitea. "Kalin pasau ta etziben salbeik eiñ".

Salda, saldie. 1. Salda. "Saldiek beti ondo artze nau". 2. Fundizioko likidoa.

Saleri, salerixe. Izurritea. "Medikuk esan dit salerixe dabillela bolara ontan".

Saltatzaille, saltatzaillie. Beti saltoka diarduenari buruz esan ohi da.

Sanidade, sanidadie. 1. Maltzurtasun eza. "Orrek kriston sanidadie zaukeik, bate malizik etzaukeik". 2. Pertsoneri buruz ari garenean pertsona alaia, zorienttua adierazteko. "Sanidade ederra zan aure, gaztetan eukitze genduna".

Santa eske, santa eskie. Kantak abestuz etxez etxe egiten den eskea. "Egueldi eskaxa eiñ arren or jun giñen santa eskin".

S

Santu artue. Gustokoa, atsegina. "Beiñe ezta izen moteil ori gure etxin santu artue".

Sapai, sapaixe. Ganbara. "Sapaixen eukitzeitue tratorie ta olako gauzek". Ikus ganbara.

Sapato, sapatue. Larunbata. "Len aste bukaerie ostirelin aste zan, oiñ berriz, sapatuten, baiñe alare juergako egunik ederrena izatea".

Sartu-ertena. Bisita azkarra. "Amamana nitxin sartu-ertena eittea".

Sasiletrau, sasiletraue. Jakintsua, ikasketak dituenari buruz esaten da, zentzu peioratiboa du. "Ze esan ber eteiu sasiletrau orrek".

Sasoi, sasoie. 1. Garaia. "Afai paxarie eitteko sasoi en allau zeate". 2. Indarra, osasuna. "Mendire juteko sasoi badauket ondik".

Sasoko, sasokue. Gariakoa. "Sasoi en sasoko berdurek jatie gustatze zaku".

Sastraka, sastrakie. Sasitza. "Sastrakie erretzen ai diz bire ertzin".

Satisfaixo, satisfaxue. Uztea. "I daukek satisfaxue".

Saxau. Saiatu. "Ni neu zaxau naiz beti umiei aurrea bidie irikitzen".

Segidan. Ondoren, jarraian. "Gure aitten segidan anaxek artu zeben".

Seittun. Berehala. "Seittun etorriko naiz, erreka bat eittea nijue".

Sekadero, sekaderue. Alkoholikoak sendatzera bidaltzen zituzten Donostiako psikiatrikoa. "Maria atzo sekaderoa eman tziaben, ez omen tzabilen ondo aspaldixen".

Seltz, seltza. Sifoiko ur gasduna. "Bermute seltzakin, faorez".

Serenero, serenerue. Gau-zain. Lehen, gabeen, auzoak zaintzen ibiltzen zenari deitzen zitzaion. "Len serenerue ibiltze zan gabin, oiñ berriz, merixue".

Sereno, serenue. 1. Behelainoa. "Mendixe peligrasue ize tea serenue sartzeanin". 2. Gau-zain. Ikus serenero.

Sermoi, sermoie. 1. Apaizak mezan egiten duena. "Sermoi motza izen tzan lengo jaique". 2. Errita. "Berandu aillatzen naizen bakoitzin eundeko sermoie botatzeibe".

Sermola(r)i, sermola(r)ixe. Sermoi egiten duena.

Silla, sillie. Sukaldean egoten den aulki luzea. "Aulkixen nik beixek jeizteittut eta sillan bazkaldu eittet".

Sokarantza, sokarantzie. Sokasaltoa. "Len geixena gustatze zizkun jolasak sokarantzie eta sapoketan ibiltzie zin".

Sokoliñ, sokoliñe. Intxaur azalaren tinta. "Intxaurrek jasotzen eon naiz ta eskuk sokoliñez beteta dauzket".

Sopak eiñ. Harriak uretara bota eta saltoka saltoka ibiltzen denean.

Sopero, soperue. Losintxan ibiltzen dena. "Aldeiek emendik, sopero orrek!".

Sotamano, sotamanue. Pelotaz ari garenean, airez jotze-ari deritzo.

T

Su piztaille, su piztaillie. Beti ingurukoak nahazten edo amorrarazten dabilena. "Su piztaillie aiz ba, inguruk ez baittuk naasten ez aiz pozik eoten".

Sube, subie. Sugea. "Erloa guzela subik erten ziun".

Subelingera, subelingerie. Sugandilla. "Gaztetan asko gustatze zikun subelingerak arrapatzie, gero buztena moztu ta nola moitze zin ikusteko".

Sufestak. Suzko erreberak. "Andramaxetan eon izen die sufestak".

Susa. Behia ar eske dagoenean. "22 egunez bein eotea beixe susa".

Sutur, suturre. Sudurra. "Suturre autsi diat".

Sutxerren, sutxerrena. Urpeko untzia. "Sutxerrenak urpin eote zin ta barkuek gaiñien".

Suzko erreberak. Ikus sufestak.



Taberna, tabernie. Taberna. "Beti taberna berdiñetan ibiltze gaittun, ez ten zaille gu topatzie".

Taju. Fundamentua. "Egun erdixe tajuzko ezerre eitteke pasau diat".

Taka, takaie. Kolpea, bai fisikoa bai psikologikoa.

Takar, takarra. 1. Ukipenari dagokionez, latza. "Esku oso takarrak eukitzeittu, beti krema berezixe erosi ber ize-teu". 2. Pertsonaz ari garenean, abileziarik, trebetasunik gabea. "I oso takarra aiz lan fiñ auek eitteko!". 3. Izaeraz, zakarra. "Aiñ da takarra, iñok eztula nai izeten bearekin jolasin ibilli".

Talleto, talletue. Teilatua. "Uda ontan baserriko talletue konpondu ber deu anaixek".

Talo, talue. 1. Taloa. 2. Lurrera erortzean ipurdian atera ohi den lokatzezko orban borobila. "Ipurdixe potzun jarri ta or ibilli zan partido osue atzin talue zula".

Tariketa, tariketie. Alpargatan josteko modu bat da. "Makinin eiñ berrin eskuz eitte gendun tariketan".

Tarra(t)x, tarra(t)xa. Narratsa. "Tarratxa zea ba! Nik ezta-kitt lurrin bueltaka ibiltze al tzean, eo ze!".

Tarrata, tarrataie. Arropa puskatzerakoan egiten den irekidura. "Maratillikin trabau ta tarrataie eiñ nun alkondan".

Tarteko, tartekue. Familiakoa. "Oxek gure tarteko eitteie, gure ama zana oxen aitten lengusue".

Tente. Zutik. "Sasoi baten ez nekixen zutik eotie zer tzan, tente bai".

Tia. Neska. (Gazteen artean erabiltzen da batez ere eta amaierako bokalean azentua darama).

Tio. Mutil. (Gazteen artean erabiltzen da batez ere eta amaierako bokalean azentua darama).

Tipa, tipie. Neska. "Tipa ori beti berandu sartzea autobu-
sin". Ikus tia.

Tipo, tipue. Mutila. "Pistina jute naizen bakoitzin tipo ori
eotea sokorrista, besteik etzat tokau". Ikus tio.

Tiposo, tiposue. Itxurazkoa. "Gizon tiposueda ba, beak
dauken edadeako".

Tiraizo, tiraizue. Joera. "Gure Mikelek beti euki du kanpo-
ako tiraizue ta azkenin junda urtebete kanpoa".

Tire ona. Pilota ona jokorako. "Tire oneko pelotie tokatzik
alde aundixe eukitzeu".

Tiren ibilli. Azpitik ibiltzen den pilota.

Tirisi, tirisixe. Tisia.

Tirtiri, tirtirixe. Ipurdikara. "Ezin du geldik eon, tirtiri utse da".

Titera, titerie. Ditarea. "Josteko beti ibilli izen det titerie".

Titoli, titolixe. Maritxua. "Igorri nesken gauzek, danak
gustatze zaizko, ori titolixe dana".

Toaja, toajie. Eskuoihala. "Ez aztu plaireko toajie ematie".

Toka. Jolas bat. Eskuarekin burnizko borobil batzuk bota-
tzen dira eta makil batean jo behar da.

Tokan. Besoa bularraren parean lotuta eraman. "Besue
tokan euki du jundaneko bi illebetin".

Toke, tokie. 1. Pelota bizia denean "tokie" daukala esan
ohi da. 2. Pelotak hotsa duenean. "Pelota orren tokie
gustatze zitek". 3. Pelotariak duen ukitua. "Pelotai
onek toke berezixe dauke". 4. Pertsona batek duen
ukitu berezia, gehienetan era peioratiboan. "Famili
ortan danak daukebe toke ori".

Tokittea. Zerbait edo norbait oso urrutira joan dela adie-
razteko. "Je! tokittea jun da ba gizon aure!".

Tokitteko, tokittekue. Zerbait edo norbait oso urrutikoa dela
adierazteko. "Tokitteko jendie etorri da". Ikus lekuteko 1.

Tokolo, tokolue. Betekada, enpatxua. "Familiako bazkaixe-
tan kriston tokolue arrapatzet beti".

Tolle, tollie. Arrain mota bat. "Arrandeire jun, ta nola ez
nakinun zein arrai erosi, tolle artu nun".

Tolostau. Doblatsu, tolestatu. "Ixiritte dauzketen erropa
guztixek, tolostau ta gordetzie falta zat".

Tontamentin. Akordatu ere egin gabe. "Tontamentin jende
pillue juntau gea".

Tonto plantan. Akordatu ere egin gabe. "Tonto plantan
mozkor galanta arrapau gendun". Ikus tontamentin.

Tontolapiko, tontolapikue. Tentela. "Tontolapikue aiz ba!
Ez aiz festikin enteratzen!".

Tortolox, tortoloxa. Taba, kurkulux, saka, txoko.
"Tortoloxin jokau gendun".

Tortoloxetan. Tortoloxekin jolastu.

Total. Erabat, guztiz. "Gaur eguneko pelota eittie ta leno-
kue, total diferentik die".

Trabena, trabenie. Taberna. "¡ Julianek trabenie iriki omen dik!". (Taberna eta trabena biak erabiltzen dira).

Trago, trague. 1. Tragua. "Trago bat kendukoizut". 2. Errondan ateratzen den edaria. "Oingo ontan nik eskaukoiñat danantzako trague".

Trakets, traketsa. Baldarra, dorpea. "Gauze danak geizki eitteittuk moteil! I baiño traketsoik eztiat iño ikusi".

Tranpal, tranpala. Ikuluetan egoten den atea, ireki eta belarra botatzeko. "Iriki zak tranpala, emen zitoztek ta bestik tratoreka belarrakin".

Transito, transitue. Pasabidea. "Gure etxeko transitue luzie dek irikin konparau ezkeo".

Trauska, trauskaie. Zerbaiti kendutako zati bat. "Emaien ogi trauskaie ederra zion da".

Tren mutur-beltza. Iketzarekin ibiltzen zen antzinako trena.

Trintxe, trintxie. Egurra lantzeko tresna, zizela. "Arrixetan izenak grabatzeko trintxie ibiltzeu arek".

Trintxera, trintxerie. Euritarako jaka. "Euri asko ari du ta, jantzizu trintxerie kalea erten aurretik".

Tripejan, tripejana. Urduritasuna. "Notie jakin arte, euki gendun tripejana politte izen tzan ba!".

Tripeka, tripekaie. 1. Asko jaten deneko sentsazioa. "Etzat geixo sartzen, kriston tripekaie dauket". 2. Sabel handia. (Gazteen artean). "Ori tripekaie daukekena!".

Tripeko botoie. Zilborra. "Gure umiei, gustatze zako beintzet tripeko botoien jolasin ibiltzie".

Trokel berekuk. Berdinak. "Trokel berekuk dittun oxek, berdiñ-berdiñek dittun ta".

Trokel, trokela. 1. Makina. 2. Mozkorra. "Andramaxetan beti eundeko trokelak arrapatzeittu, eztao ortako esku-bideik".

Tropoillo, tropoillue. Elkarren ganean, nahastuta. "Ortxe dauzken erropa danak tropoillun, oe gaiñin".

Trukau. 1. Aldatu. "Txikiten nei geixena kromuk trukatzie gustatze ziten". 2. Bihurritu. " Antxintxike nijula ankie trukau ziten".

Ttanttan, ttanttana. Txarrastada. "Kafiei botaixozu patxaran ttanttana, faorez".

Ttanttun. Eran, moduan. "Gu aizpe danok gure ttanttun ibiltze gea".

Ttunttun, ttunttune. Danbolina. "Txistue ta ttunttune jo zittun ber garaixen". Ikus danboliñ.

Tuer, tierra. Begibakarra. "Gure anai gaztie tierra geldiu zan begireko eman zixoben botike batekin".

Tuntun, tuntune. Zontzona, leloa. "Tuntune aiz ba, benetan!".

Tutik ez. Ezer ez. "Tutik ez tet ulertu".

Txafaburo, txafaburue. Suziria, txapligua. "Gure erriko jaixetan eoteien txafaburuk ezte bate earrak izeten". Ikus etxafuru.

Txakur aundi, txakur aundixe. 10 zentimoko txanpona. "Garai axetan etzan oiñ bezela izeten, txakur aundi bat euki ezkeo eundokue izete zan".

Txakur eztul, txakur eztule. Eztul gogor eta itsusia.

Txalana bota. Botaka egin. "Txalana bota ta orduntxe librau nitzen".

Txalana eiñ. Botaka egin. "Sapatun mozkor galanta arrapau ta txalana eiñ omen tzun".

Txandar, txandarra. Kirola egiteko erroa. "Txandarra erosi det polideportiboa juteko".

Txango, txangue. Beso-euskarria. "Besue txangun euki det ilebete batzuten".

Txanka, txankie. Kartajokuan, hamarrekoa.

Txankamalo, txankamalue. 1. Txorimaloa. "Aittitek beti eukitezun txankamalue baratzen". 2. Pertsona hanka luzea.

Txapitule, txapitulie. Halamoduzko estalpea. "Txapitule baten azpizen eon giñen ekaitze bukau arte".

Txaplanin. Ezer handirik egin gabe egon. "Goiz erdixe txaplanin bota deu lan aundik eiñ gabe".

Txara, txarie. Baso zikina, nahasia.

Txarki. Gaizki. "Txarki in dek ori".

Txarrantxa, txarrantxie. 1. Abarketagintzan, txortan egiteko erabiltzen zen haria. 2. Arantzadun alanbrea. "Gaur arratsaldien txarrantxie ipiñi ber deu esolatik esola".

Txarrasta, txarrastaie. Txarrastada. "Botaixok txarrastaie (anisa, pattarra) kafiei". Ikus ttanttan.

Txarretera, txarreterie. Zirritua, brageta. "Ixoizu prakan txarreterie, kaltzontzilo danak ikuste zaitzu ta".

Txarro, txarrue. Pitxerra. "Zerbeza txarrue ataizak!".

Txartxo, txartxue. Justu txarra esanahiaren kontrako zentzua hartzen du -txo atzizki txikigilea izenondoari gehitu diogunean. "Txartxue den ba loterixe tokatzie, bal dakin zenbat gauze eiñ leizken!".

Txepel, txepela. Geldoa, motela. "Txepela aiz ba! Ez aiz ezertako animatzen".

Txermen, txermena. Udarea. "Guk txermena ezateixou-nai beste batzuk udarie esateixobe".

Txermena, txermenie. Udarea. Ikus txermen.

Txiba. Bi kanikak elkarrekin jotzen dutenean. "Txiba eitte gendunin, batek bestin kanikie irabazte zun".

Txiki, txikixe. 1. Txikia. 2. Droga munduan, porroa edo arra.

Txiki-txiki eiñ. 1. Apurtu. "Kolpin ondoren, kotxie txiki-txiki einde geldiu zan". 2. Jipoitu. "Pakin ez banaun lagatzen, txiki-txiki eingo aut".

Txikori, txikorixe. Txikoria. "Gure etxin beti eiñ izen da kafie txikorixekin".

Txilindro, txilindrue. Bideko eta errepideetako galipota lautzeko makina.

Txilindruk arrapau. Oso gaizki osasun aldetik edo biharar-munaz. "-Nola ao? -Txilindruk arrapaute".

Txilipurdi. Buelta. "Ondarretan txilipurdike ibltzie gustatze zako".

Txime arro, txime arrue. Ile arro edo nahasia. "Txime arro oxekin itxurebe zaude".

Txime luze, txime luzie. Ile luzea. "Txime luze ori, etzat bate gustatzen".

Txime, tximie. Ilea. "Noa zuez ola? Noiz orraztu ber dittuzu txime oxek!".

Tximixo, tximixue. Tximinoa. "Tximixuk ikusi nittun Kabartzenon".

Tximoso, tximosue. Ile narraza. "Bi tipo tximosokin pasau die".

Tximu einde. Blai eginda. "Atte ta ni tximu einde, izerditten, talla jasotzen ibilli gea".

Tximu eiñ. Blai egin. "Zaparraiek arrapau ta tximu einde aillau giñen".

Txinara, txinarie. Enara. "Txinarak abixe eiñ debe gure teillatun".

Txinbanban. Gaztelerazko en la babia. "Ikasle gexenak gaur eun txinbanban eoteie, ez die gauzen erdixekin enteratzen".

Txindurri, txindurrixe. Inurria. "Udan txindurri asko ikusteie negureko beaxen jatekue gordetzen". (Txingurri ere erabiltzen da).

Txindurrittu. Lo hartu, inurritu (besoak, eskuak, hankak...). "Ezkerreko ankie eskubikun gaiñin denbora asko euki det ta txindurrittu eintzat".

Txinge, txingie. Kanaletan egoten den burnizko sarea.

Txingor, txingorra. Kazkabarra. "Aurtengo negun eztu txingorrik bota".

Txingure, txingurie. Ingudea. "Perratzaillien mallukikin txingurie gogortzeun bezela, segie txinguran pikau eittea".

Txintxerriñin. Jolas bat, hanka bakar baten gainean saltoka ibili behar da harri bati joka.

Txipi-txapa. Ikus txipili-txapala 1.

Txipili-txapala. 1. Apaingarri madukoak baina ez kalitate onekoak. "Txipili-txapala asko zauzken". 2. Han eta hemen ibili denbora luzean, gauza batean ez baizik hemen pixkak eta han beste pixka bat. "Txipili-txapala ibiltzie gustau zako orri, gauze bat natul bukatzeke".

Txiribi, txiribixe. Egurrezko txirlora. "Txiribixe beire sartu zikon ta bajan dao".

Txirri, txirrixie. Porroa, kanutoa. Ikus petardo 3.

Txirrinkie. Burdinazko uztaia, (ume jolasa).

Txirrist eiñ. Labaindu. "Txirrist eiñ ta ibaire eroi nitzen". Ikus lapratx eiñ.

Txirrista, txirristie. Tobogana. "Txikitten gora ta bera ibiltze giñen txirristan".

Txitxarra, txitxarrie. Porro edo kanutoaren azkeneko zatia edo muturra. "Nei txitxarra laatzte baizute, konforme!".

Txixe. Pisa. "Festatán kalin, txixe usai galanta eotea".

Txofertu. Gidatu. "Aspaldixen eztiñat txofertu ta perezikin natxion".

Txokau. Harritu. "Goizo etorri zala? txokatze zitek".

Txokotik zabalea jo pelotie. Pilota jokuko espresioa. "Atanok askotan eitte zun sake au, txokotik zabalea pelotie joiez".

Txokun dejada. Pilota jokuan erabiltzen den hitza. (ETBn ñakua).

Txoliñ, txoliñe. Kaskarina. (Emakumezkoetan bakarrik).

Txongo, txongue. Urdai azpiko hezurra azken haragi ondarrarekin.

Txori, txorixe. 1. Txoria. 2. Koleta. "Txori politte eiñ dizu gaur amak". 3. Zakila. "Txarreterie ezpazu ixotzen txorixek anka eingoizu". 4. Besapeko handitura. "Galtzarpin txorixek erten emen dixo ta dana kejaute dabil".

Txoriburu, txoriburue. Txoliña. "Hamalau urteko txoriburue ematezu ointxe".

U

Txorimalo, txorimalue. 1. Txoriak uxatzeko pertsona itxurako panpin handia. 2. Inuzentea, ganoragabea.

Txorimoño, txorimoñue. Umeen buru gaineko koleta. Ikus txori.

Txoripitto, txoripittue. Leloa, batzutan zentzu maitakorrean. "I aiz txoripittue!".

Txorkatille, txorkatillie. Orkatila. "Txorkatillie trukau det ta illebeteako dauket bedie".

Txorroskillo, txorroskillue. Zorrozkailua. "Txorroskillue ber detan bakoitzin, ezin billaute ibiltze naiz".

Txorta preskue eiñ. Larrua jo berria. "Txorta preskue eiñ det".

Txorta, txortie. 1. 5 dozena, alpargata munduan. 2. Sexua. "Gaur txorta giro zion".

Txortan eiñ. 1. Abarketa munduko terminoa, alpargatak josi. 2. Larrua jo.

Txosta. Pelotak horma eta zoluaren arteko ertza, erpina jotzen duenean. "Garai aixetan txosta asko eitte zan".

Txota, txotie. Kartetan, txanka. "Urrezko txotie irtetzie komeni zat".

Txotx, Txotxa. Zotz, ziri. "Txotxakin eskulanak eitten jardun deu".

Txurten, txurtena. Fruten kertena. "Sagarra txurten da guzti jateu orrek".

Txusperreko sagardo, txusperreko sagardue. Txotx berriko sagardoa.

Txuster, txusterra. 1. Hainbat fruituren kertena. "Sagarra jaten asi te txurtenare jateixo orrek". 2. Zigarro edo porroaren azken muturra. "!! Txusterra pasaien bein-tzet!".

Txuta, txutaie. Ostikoz emandako kolpea. "Jotzemaut txutan!".

Udea. Urteko urtaro bat, uda. "Udean Benidorrea jute gea illebete".

Ugazume, ugazumie. Semeordea.

Ugezaizpe. Ahizpaordea.

Ugezanai, ugezanaxe. Anaiaordea.

Ugezarreba. Arrebaordea.

Ujelak. Uholdeak, uriolak. "Ainbeste euri eiñ tzun 1983ko uda artan, azkenin ujelak eon tzila".

Ulu, ulue. 1. Landare mota bat, oloa. 2. Oloaren fruitua.

Ume mukizu, ume mukizue. Haur mukizua edo txikia zentzu peioratiboan. "Ume mukizu oxek gaiñetik ezin kendute ibiltze naiz beti!".

Umeeitako. Behia txahala edukitzeko. (Pertsonekin ere erabiltzen da).

Umesentittute. Behia txahala edukitzeko. Ikus umeeitako.

Urre zamarrin. Gertu. "Bi aizpe urre zamarrin bizi die".

Urrin. Gertu. Ikus urre zamarrin.

Usa(d)ixu, usa(d)xixue. Ohitura. (Usario ere erabiltzen da).

Usau. Erabili. "Pelotie usautekun goxatzea".

Usei gozo, usei gozue. Lurrina, perfumea. "Usei gozue botata azaldu zikunan".

Uskeri, uskerixe. Oso gutxi, miseria. "Uskeri bat kobratze gendun garai artan, ta lana onenan pare eitte gendun".

X

Ustel, ustela. 1. Galdua (janaria, fruituak...). "Sagar au ustela dao". 2. Pertsona makala. "Beti kejatzen, ustela aiz ba!".

Ustu. Puzkerra bota. "Batemat earki ustu da beintzet!".

Ustualdi, ustualdixe. Fisiko eta psikologikoki barruan dagoena bota. "Esan berrekuk esan al dittuk? ustualdi earra artu dek ordun!".

Uxau. Izutu, ikaratu. "Txorimalue ematek ointxe, jendie uxatzen".

Uzkerbutroiek. Galtzontziloak. "Len garai batin, aittittek eta uzkerbutroiek ibiltze zittoben, oiñ berriz kaltzontzillo motz-motzak".



Xakel, xakela. 1. Igela. 2. Azkoitiarra. "Axkoittikuei xakelak otseitteiuibe".

Xano, xanue. Pertsona xaloa, inozoa. "Azkoittiarrek xanuk omen gea".

Xapo, xapue. 1. Zapoa. 2. Azpeitiarra. "Azpeittikui xapuk otseittexobe".

Xaputar, xaputarra. Azpeitiarra. Ikus xapo. "Xaputarran kontra fuelin jokatzeko gendunin ambiente earra eote zan".

Xar, xarra. Agurea, edadetua. "Xar ori beti pasiren ibiltzea".

Xarga, xargie. Sarea bezalako tela.

Xarrera, xarrerie. Esprinta. "Ori xarrerie eiñtzuna, berko larena aillau!".

Xaxau. Aizkatu, zirikatu. "Txakurre xaxau ta xaxau ibiltze bazea azkenin ortzaka eingoizu".

Xaxtar, xaxtarra. Txikia, narratza. "Erropa xaxtar ori botatzeko morun daukezu".

Xeen, xeen. Patatari ateratzen zaizkion kimu sortak. "Patatak xeenek betetzen ai die ainbeste denboran eukitte". Ikus ernemuñ.

Xei. Sei zenbakia. "Xei bat aldiz otseiñ du gaur onea".

Xelebre, xelebrie. Berezia. "Gure kuadrilleko Mikel oso xelebrie da, sekule ezta nai izeten festata jutie lagunekin".

Xeme(i)ko, xeme(i)kue. Bost zentimoko txanpona. "Xemekoike etziten gelditzen".

Z

Xerrada, xerradie. Haragi zarrastada. "Goiko baserrixen askotan eitte gendun amarretakue, xerradie patatakin". (Xerrara ere erabiltzen da).

Xextra, xextrie. Iskanbila, "Bi aizpe batea eon ezkeo, xextrie tarteko".

Xipo, xipue. Pintzela. "Xipue ibilli ta geo, ondo garbiu". Ikus xipue.

Xipulada, xipuladie. Gaixotasun mota bat, erisipela.

Xipule, xipulie. Ikus xipulada.

Xipulero, xipulerue. Ilea garbitu gabe, koipetsu, narraz daramana. "Ze xipulero piure da ori?".

Xira, xirie. 1. Plastikoa. "Xira batekin tapau mueblik ez bustitzeko. 2. Euritako arropa. "Eunpasa juteko bazpারে xirie artu".

Xirimiri. Lanbroa. "Xirimiri onekin dana blai einde bukauer deu".

Xirkue eiñ. Futboleko dribling egin.

Xittel, xittela. Petrala. Erraz haserretzen den pertsona. "Andereño xittela tokau zaku ba aurtent!".

Xur, xurre. Zuhur, dirua gastatzea kostatzen zaiona. "Pezetaike ezta barkatzen, xurre da ba!".

Zabaletik zabalea. Zabalean jo eta zabalean pilota uztea. "Txoko plantan artu ta pelotie zabaletik zabalea botatze zun".

Zabalin dejada. Pilota munduan erabiltzen den hitza.

Zai, zaixe. Birrina, zahia.

Zail, zaille. Zaila. "Zaille da hariketa au, e?".

Zaiñ-eten, zaiñ-etena. Giharra etetea. Ikus aragi etena.

Zaiñ-tirau, zaiñ-tirae. Uzkuordura.

Zaiñ-tiretu, zaiñ-tiretue. Uzkuordura. Ikus zaiñ-tirau.

Zaixe jo. Erropa jo.

Zakar, zakarra. 1. Hautsa. "Zakarra sartu zaku beixen". 2. Zaborra. "Ganbarako zakarrak atetzen ibilli gea". 3. Izaeran lehentasunik ez duen pertsona. "Geo ta zakarro dao gure ori!".

Zaku. Zakue. 1. Zakua. "Patata zakue erosi deu almazennin". 2. Lo zakua. "Zakue iñok prestautekue omen tzeben". 3. Tripa handia. "Ezkundu danetik zaku earra bota du".

Zaldi, zaldixe. 1. Baserriko zaldia. Ikus Kaballue. 2. Kartajokuan hamaika, zalduna.

Zaldun, zaldune. Kartajokuan hamaika, zalduna. Ikus zaldi 2.

Zamorru, zamorrue. 1. Intsektua. "Zamorru ako izete zan ordun". 2. Pertsona bati buruz gaiztoa dela adierazteko. "I aiz zamorrue!".

Zanbra, zanbrie. Zortea, zoria. "Ondo bizi gaituk, ori zanbrie guk!".

Zanpan, zanpana. Leloa. "Zanpana aiz ba, neska!". (Emakumezkoetan bakarrik erabiltzen da). Ikus txoliñ.

Zapoka. Ume jolasa, eskutaketan. "Gu len sapoketan ibiltze giñen, oingo gaztik berriz, ixkutaketan ibiltzeie".

Zapoketan. Ume jolasa, eskutaketan. Ikus zapoka.

Zar, zarra. 1. Haundia. "Hau dek txakur zarra!". 2. Zaharra. Ikus xar.

Zarbo, zarbue. Pertsona iluna, zamorroa. "Joxe dek zarbo zarra!".

Zarbo-zarbo, zarbo-zarbue. Gaizto-gaiztoa. "Betitik izen dek zarbo-zarbue". Ikus zamorru 2.

Zarrapastan. Arrastaka. "Beti txaketie zarrapastan emateu".

Zartau. Pitzatu. "Otzakin ezpain danak zartau zaizko".

Zasta, zastaie. Zitada. "Albandorrazakin zasta earra artu nun".

Zelemiñ, zelemiñe. Alea neurtzeko neurria.

Zeledon eiñ. Edozer gauza egin. "Xelebrie unan zeledon eitte ziñan".

Zeletan. Ezkutuan begiraten. "Alkatie bere kontsejugin eoten zanin, an eote zan bere laguntzaillie, leixo atzin zeletan alboko erriko alkatiei kontatzeko geo".

Zemateko. 1. Zenbat denborako. "Zemateko ao?". 2. Zenbateko balioa duen zerbaitek galdetzeko. "Zematekuk die piper auek?".

Zesto, zestue. Otarra, pilotak gordetzeko. "Zestun pelota diferentik eote zin".

Zikin estali, zikin estalixe. Zikindu arren antzematen ez dena. "Kolare ilunek zikin estalixek die".

Zikinontzi, zikinontzixe. Zakarrontzia. "Kaletan zikinontzi geo ta gutxixo daude".

Zikire. Gutxienez. "Zikire kontau baziun, lagunduko giñon".

Zimentoixope, zimentoixopie. Eliz atariko arkupea, lehen hildakoak elizan sartzen ez zirenean edukitzen ziren tokia.

Zinbili-zanbolo, zinbili-zanbolo. Kulunka. Ikus zinbulu-zanbulo.

Zinbulu-zanbulo, zinbulu-zanbulue. Kulunka. "Zinbulu-zanbulun ibilli giñen parkin umikin".

Zintz eiñ. Muskirak kendu. "Mokuk dauzketzu, zintz eizu kentzeko".

Zirriborro, zirriborrue. Arreta gabe egiten diren irudi edo idatzi ulerkaitzak. "Kuaderno dana zirriborroz beteta zauken".

Zirtzill, zirtzille. Bizia, pikaro samarra ere bai. "Betittik izen da zirtzill xamarra".

Zisko, zizkue. 1. Presetan, uran bidea ixten dion plaka. 2. Egoera txarrean dagoenak ere "zisko einde" dagoela dio. "Eun osun lanin pasau diñat ta zisko einde natxion".

Zizipaza. Zipi zape hitz egin. "Zipizapa itzeitteu betitik".

Ziztriñ, ziztriñe. Txukunaren aurkakoa. "Praka ziztriñ oxekin irten eiñ ber din pertsonik kalea!".

Zokor mazo, zokor mazue. Zokorrak apurtzeko tresna. "Jotzemaut zokor mazukin burutik bera!".

Zokor, zokorra. Mokorra, lur zati trinkoa.

Zolki, zolkixe. Emakumeak buruan ematen zuten zapi modukoa, gero gainean emaulkia eramateko.

Zontzon, zontzona. Leloa. (Emakumezkoekin bakarrik erabiltzen da). Ikus zanpan.

Zopa eiñ. Busti. "Eiñ tziun zaparraiekin zopa eiñ giñen etxea aillatzeako". Ikus tximu eiñ.

Zopako, zopakue. Baratzuri zopa egiteko ogia. "Zopako ogixe falta zat erostie".

Zopizerrin eiñ. Belarra mozteko lanetan ihardun.

Zopizertu. Belarra azaletik moztu.

Zorau. 1. Galdu (esnea). "Esnie frigorifikun oinbeste denboran zorau eintzat". 2. Erotu. "Golpe bat artu zun burun ta zorau eiñ tzan".

Zorne, zornie. Zolduta dauden zaurietan eratzen den likidoa. "Irikixe zorniekin, dana geiztotute dauke".

Zorro, zorrue. Poltsa. "konpratako zorrukin kargaute etorri da etxeaiño".

Zuetz, zuetza. Belar meta. "Atzo bi zuetz eiñ gitxian base-
rri ondun".

Zuiñ, zuiñe. Lurrean egindako marra. Helmuga. (Nemesio Etxaniz, 1992).

Zukutu. Patata, garbantzia... sardeskaz zapaldu.

Zulder, zulderra. Azalean sortzen den garau zoldua. "Aitorrek aurpegi osue zulderrez beteta eukitze zun, baiñe alare, mutil earra zan ba!".

Zuloko, zulokue. Zuloko belarra. "Zuloko dana ustu ber da lelengo".

Zumeka, zumekie. Zumezko makiltxo. "Zumekie uretan laga ber da pixket biuntzeko".

Zumitze. Adar emea eta malgua, saskigintzan erabiltzen dena. Ikus zumeka.

Zurrusta, zurrustaie. Esnifatzeko arra. "Zurrusta mat artu dula antzemate zako".

Zurrute. Edana. "Aste bukaeratan zurrute majo ibiltzeu orrek".

Zurrutero, zurruterue. Asko edaten duena. "Zurrutero xamarra da gure aitte, beti gustau izen tzako jan da eran ondo eittie".

BIBLIOGRAFIA

- **ARGOITIA, J.A.; AZKARATE, N. eta GEZURAGA, X.:** Eibarko euskararen esaerak eta bestelako berezitasun batzuk. Eibar: Eibarko Udala, 1998.
- **ASKOREN ARTEAN:** Hizkuntzalaritza hiztegia 1-2. Donostia: Elkar, 1982.
- **ETXANIZ, N.:** Kartak (idazkiak) ¿Nola idatzi euskeraz? Idazki sorta. Zarautz: Itxaropena, 1950.
- **ETXANIZ, N.:** Izotz kandelak. Gobernadore jaunari eta beste zenbait jauni (gutunak). Donostia: Elkar, 1992.
- **FRAILE, I. ea FRAILE, A.:** Oiartzungo hizkera. Oiartzun: Oiartzungo Udala, 1996.
- **GARATE, G.:** Erderakadak. Euskaraz ongi mintztzeko hiztegia, zazpi probintziako adibideak. Bilbo: Mensajero, 1988.
- **ITURAIN, I. eta LOIDI, L.:** Orioko euskara. Orio: Orioko Udala, 1995.
- **MITXELENA, K.:** Orotariko euskal hiztegia. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-1999.
- **NARBAIZA, A.:** Eibarko euskara. Gutxiespenaren historia. Eibar: Eibarko Udala, 1998.
- **SARASOLA, I.:** Euskal hiztegia. Donostia: Kutxa Fundazioa, 1996.
- **USABIAGA, A.:** "Gazte hizkera", *Gaztetxulo*, 5. Zbk, 1999.
- **ZAVALA, A.:** Atano ta Estrada bertsolariak. Tolosa: Auspoa, 1982.
- **ZAVALA, A.:** Azkoitia'ko zenbait bertsolari. Tolosa: Auspoa, 1970.
- **ZAVALA, A.:** Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. Tolosa: Auspoa, 1982.

